Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

azkunazentroa.eus

EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

## Jar zaitez harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus
info@azkunazentroa.eus
944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4
48010 BILBAO

Lege gordailua BI-1482-2018

© 2018. Centro Azkuna de Ocio y Cultura S.A

Azaleko argazkiak: Sigrid Stigsdatter Mathiassen. *Hope and Heavy Metal* / Osa+Mujika: *SudenlyIII*

*Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao leku egokia da kultura praktika, prozesu, esperientzietarako espazio gisa bizitzeko.*

7 *Hamargarren urtemugaren atarian.* Fernando Pérez. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria

8 Arte eta sorkuntzarako kodeak

10 Steve Paxtonengandik Prototipoak-era

12 Sorkuntza garaikidearen kartografia

**PROGRAMAZIOA**

/Arte garaikidea

18 *Open Codes. We are data.* Erakusketa

20 Garazi Ansa, Marc Badal eta Laura Vallés. Komisario Berriak. Erakusketa

22 José Ramón Ais eta Lester Álvarez. *Gauari begira*. Erakusketa

24 Susana Blasco. *No rain, no gain*. Fatxada Proiektua

26 Ane Pikaza. Fatxada Proiektua

28 Nestor Lizalde. *Akelarre elektrikoa.* Instalazioa

30 consonni radio AZ-rekin. Egonaldi Artistikoak

32 2019 Eremuak Jardunaldiak. *Natura/k*

34 Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua*. Artista Az Kidea

36 Oscar Gómez Mata. *Deriben katalogoa.* Artista Az Kidea

/Zinema eta ikus-entzunezkoak

39 *Zinemaren historiako 50 harribitxi.* Zinemateka

43 *Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz.* Zinemateka

49 Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan. Zinema garaikideko zikloa

52 Zinexit: Elkarbizitzarako Zinemaerakustaldia. Jaialdia

53 Film Sozialak. Zinema Ikusezinaren 11. Jaialdia. Jaialdia

54 Zinemakumeak Gara! Emakumeek zuzendutako Zinema Erakustaldiaren 24. edizioa. Jaialdia

55 Zinebi. Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren 61. edizioa

/Kultura digitala

56 Haritu, kultura digital eta teknologiako laborategia

58 Knowledge Exchange Forum. Culture Lab, laborategi digitala. Mahai-ingurua

60 Bilbao Maker Faire. Jaialdia

/Arte biziak

62 Matarile Teatro. *Daimon y la jodida lógica*. Antzerkia

64 Tartean Teatroa. *Ghero*. Antzerkia

66 Thorus Arts. Ferran. Carvajal eta Trevor Carlson. *Not a moment too soon.* Dantzaldia 2019

68 La Tristura. *Future lovers*. Antzerkia

70 Aimar Pérez Galí. *The Touching Community*. Dantza

72 Osa+Mujika. *Suddenly III.* Dantza

74 Barruan. Musika eta gastronomia berrien hiriko ibilaldia. Musika eta soinua

76 Jean-Luc Guionnet eta Lotus Eddé Khouri. *Reciprocal scores*. Musika Esperimentala

78 Le Parody. Musika eta soinua

80 C. Alex McLean eta Sarah Rasines. Musika Esperimentala

82 Geoff Farina. Musika eta soinua

84 La Escucha Errante 2019. Musika eta soinua

**/Gizartea**

86 VI Bilbao European Encounters. *Demokrazia Europan, eta haren kritikak.* Nazioarteko biltzarra

88 Berbagunea. Topaketa

90 Gabonak Arte. Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat. Gabonak

**EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA**

50 Alina Aguila eta Tana Garrido. Praktika Artisikoak

**HEZKUNTZA PROGRAMA**

100 *Inausteko garaia*. Collage tailerra. Susana Blasco

101 *Gogo zatiak.* David Hornback. PlayTime Laborategia

102 Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

103 Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak

104 Bilboargazki 2019

105 *La memoria del cuerpo: formas en el espacio-tiempo.* Dokumentala

106 Bilbon Eskolatik Antzerkira

107 Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia

108 JokuPlay

109 Robotika, programazio eta bideojokoen diseinuko tailerrak.Camp Tecnológico

**AZ**

112 Mediateka, pentsatzeko, konektatzeko eta sortzeko lekua

113 Lantegia. Ideien LABorategia, arte eta komunitateen habitat berria

114 dendAZ. This is Basque Design: diseinuari irekitako leiho bat esperientzia gisa

115 Entrenamendu Funtzionalerako Areto berria JFZn

116 Hobekuntza positiboko planak

**AGENDA**

120 Agenda

128 Informazio orokorra


TENTO

# Hamargarren urtemugaren atarian

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren hamargarren urtemugaren atarira heldu gara, bilakaera-prozesu betean, gizarte garaikideak jotzen dizkigun erronkei ekiteko. Beti pentsatu izan dut proiektu kulturalak organikoak direla, bizirik jarraitzeko, hazi, eta eraldatu behar dutela ezinbestez. Azkuna Zentroari dagokionez, aurrerapen hori honezkero gauzatzen hasia den 2019-2023 Proiektu-Programaren bidez egituratzen da.

Nestor Lizalde artistak lehenengo aldiz aktibatu du uda honetan Terraza, baliabide berriak deitutakoen bidez artearen munduan azaldu diren aukera berriak ikertzen dituen Aquelarre eléctrico instalazioarekin. Bestalde, dendAZ. This is Basque Design sortzean, leiho bat zabaldu dugu Atarian, diseinuaren esperientzia erakusteko, eta espazio publiko bat eskaini diegu artistei, beren prozesuak, praktikak, produktuak eta zerbitzuak ikusgai jarri eta partekatzeko, erosketa sortzaile berriaren inguruko kontzientzia piztuz.

dendAZ espazioak zubi-lana egiten du Lantegiarekin, hau da, Jarduera Osagarrien Zentroan gauzatzen den ideien eta sorkuntzaren LABorategiarekin. Lankidetza eta trukerako toki honek ikusleen komunitateak kultura-ekoizpenean inplikatzea sustatzen du. Lantegia abian jartzea xede estrategikoa da Zentroarentzat. Arte eta komunitateen habitat bat da, oso berritzailea, artistikoa eta nazioartekoa, eta, besteak beste, proiektu hauek hartzen ditu barnean: Haritu, kultura digital eta teknologiako laborategi berria, Komisario Berriak erakusketa, Garazi Ansa, Marc Badal eta Laura Vallésen ikerketa-proiektuekin; eta Tana Garrido, Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mattiassen artistak egonaldian, beren sorkuntza-proiektuak gauzatzen.

Denen artean hiruhileko honetako kultura-programazioa eratzen dute; eta, gainera, *Open Codes. We arte data* erakusketa inauguratuko dugu, sorkuntzako topaketak egiteko espazio esperimental modura, kode informatikoen eta ikuspegi artistikoen ulermena eta jakintza garatzeko. Arte eta teknologiaren binomioa Zentroko kultura-programaziora zabaldu da, Natalia Piñuel eta Enrique Piñuelek komisariatutako *Zinema irekia. Etorkizuna asmatzen* zinema garaikideko ziklo berriarekin eta Bilbao Maker Faire Teknologia Sortzaileen Nazioarteko Jaialdiarekin.

Hiruhileko honetan, Azkuna Zentroa zinemaren lekua izango da Bilbon. Zinematekako programazioaz gain, hiriko ekitaldi nagusiak izango ditugu Zentroan ikusgai, hala nola Zinebi, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia; Zinemakumeak Gara!, Emakumeek zuzendutako Zinema Erakustaldia; eta Film Sozialak, Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia.

Zuzeneko arteen denboraldi honetako programazioan, forma eszeniko berriak izango ditugu, Matarile Teatro, La Tristura eta Aimar Pérez Galirekin; musika eta soinu esperimentala Jean-Luc Guionnet, Lotus Eddé Khouri, Le Parody eta Geoff Farinarekin; eta haurrentzako eta familientzako esperientzia artistikoak Gabonak Arte programarekin.

Aldi berean, Mediateka berraztertzen jarraitzen dugu, sorkuntza eta jakintzarako espazio gisa, konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko toki modura. Orobat, Zentro osoa hobetu nahi dugu, errespetuzko espazio irekia eta irisgarria izan dadin era guztietako pertsonentzat eta komunitateentzat.

2019-2023 Proiektu-Programaren lehen urtea amaituko dugu, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren etorkizuna lantzen, hainbat formatutan hedatutako programazioaren bidez, eta Zentroaren eredu berri honen katalizatzaileak izango diren agenteekin eta artistekin, Zentroak aurrera egin nahi baitu egunez egun gaur egungo garaien bidetik.

Fernando Pérez
Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko zuzendaria

# Arte eta sorkuntzarako kodeak

2019ko azken hiruhileko honetako programazioan, berariaz nabarmentzen da arte-teknologia binomioa, gizartearen teknifikazio hutsetik harantz, digitalizazioaren ondorioei buruzko hausnarketaren hari gidari modura. Kode bitar baten atzean artea dago, eta horixe erakusten du *Open Codes. We are data* erakusketak, eta hausnarketa egiten du egungo jarduera itxuratzen duten kode-zelai bilakatuta dagoen munduaz.

*Open Codes. We are data* espazioak erakusketa-aretoko paretak gainditzen ditu, eta esperimentazio-leku bilakatzen du zentro osoa. Nazioarteko hogei artistaren instalazioek leihoak zabaltzen dizkiete beste espazio batzuei denbora errealean, interfaze digital bihurtzen dituzte liburuetako orrialde hutsak, eta keinuak askatu eta gailu mugikorrak aktibatzen dituzte abstrakzio koreografikoen bidez.

Erakusketako proiektuak hitzaldien, tailerren eta filmen proiekzioen programa bat du, eta agerian jartzen du etorkizuna nolakoa izango den jakiteko interesa behin eta berriz agertzen dela zinemaren eta ikus-entzunezkoen esparruan. Hala, Natalia Piñuelek eta Enrique Piñuelek komisariatutako Zinemateka *Zinema irekia. Etorkizun berria asmatzen* ziklo berriak gonbit egingo digu jarrera kritikoa hartzera, zinemak azken hamarkadetan jorratu duen aro post-digitaleko errealitate horren aurrean.

Hogei artistaren proposamenen bidez aro digitala esperimentatzeaz gain, Open Space abiaraziko da Erakusketa Aretoan. Espazio ireki bat, kode irekiaren gaiari lotutako tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak, biltzarrak eta bestelako ikuskizun publikoak egiteko diseinatua. Leku bizia, gardena eta irekia ikusleentzat, esperimentatzeko eta Big Datari buruzko jakintzak trukatzeko eta eskuratzeko.

Arte eta teknologiako ingurune honetan, Bilbao Maker Faire izango dugu lehenengo aldiz Azkuna Zentroan, Sorkuntzako Teknologien Nazioarteko Jaialdirik handiena, Espacio Openek sustatuta. Zientzia eta teknologiari lotutako hitzaldiak, tailerrak eta showcaseak eginez, jaialdiak esperientziaren bidezko ikaskuntza indartzen du, eta zenbait balio sustatzen ditu, esaterako, talde-lana eta jakintza komunitatean eskuratzea eta sortzea.

Harituk, hiruhileko honetan Lantegian zabaldutako kultura digital eta teknologiako laborategiak, teknologia, kultura eta gizarte garaikideko harreman hori ‘harilkatzen’ du, egiten ikasten den espazio batean. Nahi duenak du aukera fabrikazio digital, programazio edo elektronikara hurbiltzera, gazteen pentsamendu kritikoa eta sorkuntza sustatzeko musikak eta teknologiak duten indarra ikertzen duten tailerrak eginez. Diseinatzaileek, sortzaileek eta artistek eskura dituzte Lab baliabideak eta haien ezarpenak erabiltzeko. Tailer performatiboetan, mugimenduan dagoen gorputzaren eta teknologiarekin duen erlazioaren arteko harremana ikertuko da; eta topaketetan, berriz, hausnarketa egingo da jakintza teknologiko-zientifiko, ekonomia eta boterearen arteko harremanaz. Parte hartzeko ez da beharrezkoa aurrez ezer jakitea; aski da ikasteko eta probatzeko gogoak izatea.



*Open Codes. We are data.* Slowik + Lölkes + Weibel: *Alphabetic Space*

# Steve Paxtonengandik Prototipoak-era

Programazioaren aurrerapena

Arte garaikideak egitura zurrunak hausten ditu *Open Codes. We are data* erakusketan, sarrera libreko jakintza-plataforma bat garatuz eta gonbit eginez erakusketa-aretoa gogoetara irekitako espazio gisa hartzeko, jakintza trukatzeko eta hartzeko toki bat izan dadin.

Ildo horretan, arte biziak erakusketa-aretoan izango dira hemendik aurrera. Culturegest-ekin lankidetzan egindako eta Joao Fidaeirok eta Romain Bigé komisariatutako erakusketa honek Ipar Amerikako koreografo, dantzari eta inprobisatzaile Steve Paxton izango du ikusgai atzera begirakoan, dantza garaikideko aitzindaria den artista, asmatu zituen dantza-teknika iraultzaileek famatutakoa. Artxiboko materiala aurkezteaz eta proiektatzeaz gain, erakusketa honek koreografoen eta ikusleen esku jarriko du praktika egiteko moduko toki bat, aretoa dantza egiteko espazio bilakatuta.

Erakusketen programazioak aurrera egingo du udan, Ana Laura Aláez euskal artistarekin, Ca2m-rekin batera ekoitzitako eta Bea Espejok komisariatutako Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik) egongo baita ikusgai. Erakusketak artistaren azken lanetako batzuk biltzen ditu ibilbidearen hasierako beste lan batzuekin, eta sorburura biratzea proposatzen du.

Urte amaieran, Mabi Revueltari eskainitako erakusketa monografiko bat izango da, Susana Blasek komisariatuta, artistaren lana era organikoan eta prozesuan jorratzeko.

Lantegia. Ideien LABorategia espazio berrian ere artisten erakusketak egongo dira, hain zuzen, José Ramón Ais eta Lester Álvarez, Iban Gómez, Amparo Badiola, Susana Talayero eta Gema Intxausti artistenak.

Besteak beste, Ane Pikaza eta Pernan Goñi artistek Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiekturako dituzten proposamenak erakutsiko dituzte. Proiektu honetan, arte eta sorkuntzako hizkuntza desberdinek Zentroko fatxada nagusian esku hartzen dute, hiriko bizitzan txertatuta.

Egonaldi artistikoak Zentroko programazio osoaren zeharkako ardatz bat dira, eta zabalik jarraitzen dute, dantza garaikideko Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter artistekin, praktika artistikoetako egoiliar Tana Garrido eta Alina Aguila artista kubatarrarekin, eta Oscar Gómez Mata eta Sra. Polaroiska artista Az Kideekin; gainera, aurki deialdiak egingo dira komikia eta literatura lantzeko.

Dantzako programazio egonkorrean, Álex Rigolak indarkeria matxistari buruz prestatu duen *Macho Man* ikuskizuna, antzerki-instalazioa eta dokumentua nabarmentzen da. Proiektuak bide berriak bilatzen ditu muturreko matxismoaz kontzientzia hartzeko, arte eszenikoetako, arte plastikoetako, psikologiako eta dokumentazioko jakintzak bateratuz. Bestetik, estreinaldi batzuk izango ditugu, esate baterako, 2019ko dantza garaikideko egoiliarrak diren Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter-en bi piezak.

**Lantegia. Ideien LABoratategia** espazio berrian ere artisten erakusketak egongo dira, hain zuzen, José Ramón Ais eta Lester Álvarez, Iban Gómez, Amparo Badiola, Susana Talayero eta Gema Intxausti artistenak.

Musikari dagokionez, lan-urtearen hasieran Lekuonaren kontzertua izango dugu. Musikagile, kantari, performer, errealizatzaile eta ekoizle honek bere album berria aurkeztuko du: Break Fast Live. Hor, jolasean jarraitzen du pop izar-maila interpretatzen, baina, proiektu berriaren biluztasuna dela-eta, maskarik gabeko pertsonaia bat sortu behar izan du, ikuslearen maila berean aztoratzen dena. Era berean, musika esperimentaleko Hotsetan programa eta soinu-sorkuntza eta inprobisazioko topaketak izango ditugu.

Zinema eta ikus-entzunezkoen arloan, jarraipena emango diogu Zinemaren historiako 50 harribitxien zeharkako berrikuspenari, eta, orain, zinemaren historiako 100 harribitxi izango dira, eta zinema garaikideko zikloekin bateratuko dira, erakusketekin harremanetan.

Bestetik, BIdeOtik-ek formatu berria izango du, hau da, bertan, Estatuan eta nazioartean egindako bideo-sorkuntzako proiektuak sustatzeko Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok duen programak. Komisarioek gidatutako zikloekin lau urtez jardun ondoren, hausnarketa-prozesuan gaude orain, proiektu hau gehiago balioetsi nahian.

Literaturaren arloan, Gutun Zuria jaialdiaren hamabigarren edizioa izango da apirilean.

Zentroaren hezkuntza-programaren barruan, Mabi Revueltak asmatu eta beste batzuekin batera zuzendutako PlayTime Laborategiarekin jarraituko dugu. Orain arte, 500 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute programan, eta artearen izaera aztertzen du, jakintza eta eraldaketarako esparru gisa. Bestalde, Fatxada proiektuko artisten tailerrak izango ditugu, eta artistek era pedagogikoan azalduko dituzte beren sorkuntzako prozesuak.

2020an, Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketa itzuliko da, bi urtean behin egingo baita, bienal modura. Topaketa honek formatu artistiko berriak hurbildu nahi ditu herritarrengana, ez-ohiko espazioak erabiliz eta komunitatearekin batera sortutako prozesu artistikoen bidez. Prototipoak programan izango ditugun artistek eta proiektuek, site specific-etik abiatuz, beren lana proposatutako testuingurura egokituz, esperientzia berriak eskainiko dizkiete ikus-entzuleei.

# Sorkuntza garaikidearen kartografia

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin.

Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Bernd Lintermann
Artista



Refik Anadol
Artista



Olivier-Selim Boualam & Lukas Marstaller
Artistas

© Gregor Fischer



James Bridle
Artista



Claire L. Evans
Artista



Emma Charles
Artista



Rafael Lozano-Hemmer
Artista



Nikolaus Völzow
Artista

© Najhin



Varvara & Mar
Artistak

© La Biennale de Lyon



Julien Prévieux
Artista

© Akshay Sawant



Christian Lölkes
Artista



Arrieta/Vázquez
Artistak



Peter Weibel
Artista

© Picture-alliance



Karin Sander
Artista





Ubermorgen (Lizvlx & Hans Bernhard)
Artistak







Garazi Ansa, Marc Badal & Laura Vallés
Komisarioak


© Thomas Lenden
Tana Garrido & Alina Aguila
Praktika Artistikoen Egoilarrak
Sigrid Stigsdatter Mathiassen
Koreografoa eta performerra
consonni
Kolektibo Egoilarra
OSA + MUJIKA
(Jaiotz Osa & Xabier Mujika)
Koreografoak, dantzariak
Lester Álvarez
Artista
José Ramon Ais
Artista
Aimar Pérez Galí
Koreografoa eta performerra
Ana Vallés (Matarile)
Egilea, zuzendaria eta antzezlea
Baltasar Patiño (Matarile)
Zuzendaria eta kordinatzaile teknikoa
Celeste (Matarile)
Antzezlea
Ana Cotoré (Matarile)
Antzezlea
Jorge de Arcos (Matarile)
Antzezlea
Alba Loureiro (Matarile)
Antzezlea
Neus Villá (Matarile)
Antzezlea
Cristina Hernández (Matarile)
Antzezlea
Ricardo Santana (Matarile)
Antzezlea
Nuria Sotelo (Matarile)
Antzezlea
Nacho Sanz (Matarile)
Antzezlea



© Pablo Ottonello

© Victor Hugo Espejo

La Tristura
(Itsaso Arana,
Violeta Gil &
Celso Giménez
Antzerki konpainia

Oscar
Gómez Mata
Artista Az
Kidea

Sra. Polaroiska
(Alaitz Arenzana & María
Ibarretxe)
Artista Az Kideak

Susana Blasco & Ane Pikaza (Fatxada)
Irudigileak, artistak, diseinatzaileak

Leire Urbeltz (Fatxada)
dendAZ artista

Aitor Saraiba (Fatxada)
dendAZ artista

Angelica Barco
dendAZ artista

Higinia Garay
dendAZ artista

Berni Zarrari
dendAZ artista

CookPlay (Ana Roquero)
dendAZ artista

Ätakontu
dendAZ artista

Apetitu
dendAZ artista

Eder Aurre
dendAZ artista

Ainhoa Fustel
dendAZ artista

TAKO
dendAZ artista




Natalia Piñuel & Enrique Piñuel
Errealizadoreak



Roberto Menéndez
Zuzendaria, gidoilaria eta ekoizlea



Jean Luc Guionnet
Artista, musikaria



Alex McLean
Soinu-artista



David Hornback
Argazkilaria, hezitzailea



Le Parody
Abeslaria, konpositorea



Sarah Rasines
Soinu-artista




Oier Iruretagoiena
Artista



Ganboa Handmade Jewellery
dendAZ artista



Katxi Klothing
dendAZ artista



Espacio Aerre
dendAZ artista



Ixi Wood
dendAZ artista



Mario Gaztelu
dendAZ artista



Amarenak (Oihane Pardo)
dendAZ artista



Pilar Morquillas
dendAZ artista



NUOC
dendAZ artista



Proyecto Hemen
dendAZ artista



Ziriak
dendAZ artista

PROGRAMAZIOA

# Open Codes. We are data

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao eta ZKM | Center of Art and Media
Karlsruhe zentroen erakusketa



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok *Open Codes. We are data* erakusketa izango du ikusgai urriaren 23tik urtarrilaren 26ra arte, hausnarketa bat bizitoki dugun munduari buruz, kodeek sortu eta gobernatutako munduaz.

Kode digitalek zehazten dute nola hautematen dugun ingurunea, eta eragina dute gure finantza-sistemetan, legeetan eta enpresa-ereduetan. Azken batean, forma ematen dute eta aukera berriak sortzen dituzte jarduera soziala, ekonomikoa edo kulturala garatzeko.

*Open Codes. We are data* sorkuntzako topaketak egiteko espazio esperimental modura hartzen da, kode informatikoak ulertzeko jakintzaren eta ikuspegi artistikoen sorrera toki berean garatzeko. Ahalegin bat da gaur egungo errealitateekin eragin-trukea izateko, eta etorkizuneko garapen-ildoak eta ikuspegiak erakusteko, horrela, gure mundua hobeto ulertu ahal izateko, datu-eremu bilakatutako mundu bat baita.

Erakusketarekin batera, programa publiko zabala antolatu da, besteak beste, hitzaldi, tailer eta filmen proiekzioekin, egitura zurrunak apurtuz eta erakusketaren ikuskera berria proposatuz, sarrera libreko jakintzako plataforma bat garatuz, eta gonbit eginez erakusketa-aretoa gogoetara irekitako espazio gisa hartzeko, jakintza trukatzeko eta hartzeko toki eta lankidetzan aritzeko formatu berri bat izan dadin. Ildo horretan, Open Space jarriko dugu ikusleen esku, kode irekiaren gaiari lotutako tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak, biltzarrak eta bestelako ikuskizun publikoak egiteko diseinatutako espazioa. Espazio honen bereizgarria da edozeinek eman diezaiokeela forma edukiari. Erakusketak azpiegitura jarriko du; ikusleek, berriz, ideiez beteko dute. Ikusi gure web orria eskuragarritasuna eta informazio gehiago izateko.

Erakusketa konferentzia batekin inauguratuko da, *Ubermorgen, aktibismo digitala* izenburupean. Honen jarraian mahai-inguru bat izango dugu, Usue Arrieta, Jaime de los Ríos, Blanca Jiménez eta Hans Bernhard-en artean, Roberta Boscok moderatua

Ideia: **Peter Weibel**
Komisariotza taldea: **Blanca Giménez, Jaime de los Ríos, Fernando Pérez, Rakel Esparza. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao eta ZKM | Karlsruhe**
Artistak: **Adam Słowik, Christian Lölkes & Peter Weibel, Refik Anadol, Bernd Lintermann & Nikolaus Völzow, BNAG (Oliver-Selim Boualam & Lukas Marstaller), Claire L. Evans, Emma Charles, James Bridle, Julien Prévieux, Karin Sander, Rafael Lozano-Hemmer, UBERMORGEN (lizvlx & Hans Bernhard), Varvara & Mar, Arrieta/Vázquez**

Urriak 23, 2019 > Urtarrilak 26, 2020

Erakusketa aretoa
Sarrera dohainik

**Ordutegia:**
Astelehenetan itxita
Asteartetik ostegunera eta igandeak:
11:00 - 20:00
Ostiralak, larunbatak, igandeak, jai-egunak eta jai-egun bezperak:
11:00 - 21:00

**Bisita gidatuak:**
Erakusketaren bisita gidatua (45`)
Ostegunero: 19:00
Sarrera dohainik aurrez Az Infon edo 944 014 014 telefonoan izena emanda
Gutxienez: 4 lagun
Gehienez: 25 lagun

**Programa Publikoa:**
Natalia Piñuel & Enrique Piñuel
*Zinema irekia: etorkizun berria asmatuz* (pág. 43)
Maker Faire (pág. 60)
*Ubermorgen, aktibismo digitala*
Urriak 23, asteazkena
17:30
Open Space. Erakusketa Aretoa

**Antolatu zure ekitaldia Open Space-n:**
Kontsultatu espazioa eskuragarri dagoen hemen:
openspace.azkunazentroa.eus

zkm karlsruhe
Maker Faire Bilbao
DINOF

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko ***Open Codes. We are data*** Alemaniako Karlsruhe-ko Open Codes ZKM | Baliabide eta Arte Zentroaren erakusketa satelite bat da, eta hainbat eboluzio-bertsiotan garatzen ari da.

# Garazi Ansa, Marc Badal eta Laura Vallés

## Komisario Berriak

KOMISARIO
BERRIAK

Komisario Berriak (KB) deialdi publikoa 2016. urtean sortu zen, komisariotza-praktika euskal ingurunean garatzeko eta alor horretan profesional berriak sendotu daitezen bultzatzeko. Azkuna Zentroan egiten ari den bigarren edizio honek (2018-2019) laguntza ematen jarraitzen du, kuratore-proiektuak gure lurraldean agerian jartzeko, hain zuzen, azken hamarkadetan Euskal Herriari lotutako jarduera artistikoen inguruan egin diren ikerketa-proposamenak ikustarazteko. KB edizio berri honek arreta berezia jartzen die zenbait proiekturi, zehazki, komisarioaren eginkizunaren dimentsio historikoari eta narratiboari erreparatzeko garrantzia barneratzen duten lan-ildoak abian jartzera bideratutako horiei. Ildo horretan, hiru ikerketa-kasu aurkezten ditu, Garazi Ansak (Oiartzun, 1989), Marc Badalek (Bartzelona, 1976) eta Laura Vallések (Castelló, 1984) garatutakoak.

Garazi Ansaren ikerketak artearen eta aktibismoaren arteko harremanak berraztertzea proposatzen du, 70eko hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadan zehar mugimendu feministak Euskal Herrian egindako lanaren eta artisten praktikekin dituen harremanen ikuspegitik. Marc Badalen proposamenak aztertzen du ‘naturaren eta landa-ingurunearen idealizazioa kanon kultural modura’, Vicente Ameztoyk eta beste artista batzuek eraikitako imajinariotik abiatuta. Eta, azkenik, Laura Vallések *Zehar* eta *Arena* argitalpenen (Estatuan laurogeiko hamarkadara hurbiltzeko funtsezko aldizkarien) jarrera kritikoetara eta jarduteko moduetara hurbiltzea planteatzen du, arte garaikidearen teoriatik eta kritikatik abiatuz.

Irailak 19, osteguna > Azaroak 16, larunbata

Lantegia 2

16:00 - 20:00
Asteartetik larunbatera

Urriak 26, larunbata

*Inkurtsioa Sajazarrara. Mahastiaren paisaia bere kontakizunaren aurrea*

Izen ematea:
azkunazentroa.eus

Komisarioak:
Garazi Ansa, Marc Badal eta Laura Vallés

Informazio gehiago eta programa osoa:
azkunazentroa.eus

Garazi Ansa

@Lauravalvil

EUSKO JAURLARITZA — KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
GOBIERNO VASCO — DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## JARDUEREN PROGRAMA

### Marc Badal. *Deserrotzearen baldintzak (Vicente Ameztoyren obra abiaburu duten saiakerak)*

**Urriak 3 / Urriak 24 / Azaroak 12.** Lantegia 2

19:00: Landa-literaturaren inguruko irakurketa saio informala

**Urriak 25.** Lantegia 2

19:00: *Deserrotzearen baldintzak: Ameztoyren triptikoa* proiektuaren aurkezpena/hitzaldia, Marc Badalen eskutik

20:00: Insalubre Cinémathèque konpainiaren itzalen antzerkiko ikuskizun berriaren estreinaldia

**Urriak 26**

10:00-20:00: *Inkurtsioa Sajazarrara. Mahastiaren paisaia bere kontakizunaren aurrea*

### Laura Vallés. *Harean zehar*

**Irailak 19.** Lantegia 2

20:00: *Manifiesto contra la silla.* Inmmaculada Salinas-en performancea

**Azaroak 14.** Lantegia 2

19:30-21:00: Mahai-ingurua: Laura Vallés, Maider Zilbeti eta Sonia Fernández Pan

Komisario Berriak proiektua batera garatzen dute Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, CCI-k, Tabakalerak (Donostia) eta Artium, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak.

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA **ABE. 4 › URT. 16**

# José Ramón Ais eta Lester Álvarez

*Gauari begira (Mirar la Noche)*




José Ramón Ais



Lester Álvarez

Lester Álvarez (Camagüey, 1984) eta José Ramón Ais (Bilbo, 1971) artistak Lantegia, Ideien Laborategia espazio berriaren jabe egin dira. 2018ko Praktika Artistikoen Egonaldian gauzatutako proiektuen emaitza aurkeztuko dute bertan, Habanako Estudio Carlos Garaicoaren Artista x Artista programarekin lankidetzan.

José Ramón Aisek film bat aurkeztuko du erakusketan, Kubako naturan jasotako eszena ugaritan oinarrituta sortutako paisaia fikziozkoaren bitartez. Panorama eran eraikita, amets-irudi gauekoa da, 'kokuioen eta ipurtargien' argitan. Irudi horretan, Kubako herri kontakizunen giroa iraultzaren sorrerako paisaia entzutetsuekin batzen da.

Erakusketa borobiltzeko, Lester Álvarez artista kubatarraren bi proiektu daude ikusgai: *La Noche en Cuba* eta V*iaje del inquisidor Alonso de Salazar*.

*La Noche en Cuba* 1959tik 2019ra bitartean margotutako akuarelen sorta da, gauari egindako erreferentzietan oinarrituta, eta batez ere 1959az geroztik argitaratutako literatura kubatarraren barruan kontatutako ametsetan sortua.

*Viaje del inquisidor Alonso de Salazar*, berriz, 1611ko maiatzean Alonso de Salazarrek Nafarroako mendietan zehar egindako bidaiaz idatzi zuen txosten oparoa ardatz hartu duen instalazioa da; haren bidaia berregitea da asmoa, 'ebidentzia' batzuk bilatzeko.

**Abenduak 4, 2019 > Urtarrilak 16, 2020**

Lantegia 2

Sarrera dohainik

José Ramón Ais

joseramonais.com

**JOSÉ RAMÓN AIS** UPV/EHUn Arte Ederretan lizentziatura eskuratuta eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Eskolan lorezaintza-diseinuko ikasketak eginda. Proiektuan, argazki-sail bat sortu du, Kubako imajinarioa eta paisaia eratzeko izan diren prozesuez hausnartzeko, gertaera historikoak, naturako baliabideen erabilera eta ustiapena, aldaketa soziopolitikoak, eta, batez ere, eguneroko erabilerak eta jendeak naturarekin duen harreman emozionala aintzat hartuta.

**LESTER ALVAREZ** (Camagüey, Kuba, 1984) Instituto Superior de Arte (ISA) erakundean bukatu zituen goi mailako ikasketak 2011n. Orduz geroztik, sortzaile-ibilbidea garatzen hasi zen; denbora joan ahala, aukera izan du banakako erakusketak egiteko eta proiektu kolektibo askotan parte hartzeko. Haren lanak sariak ere jaso izan ditu, hala nola Ingalaterrako Emerson Collegeko Tengo Frío Artist Group beka eta Italiako Sardinian jasotako ISOLE Nazioarteko Pintura Bienalaren IX. edizioko lehenengo saria.

Elkarlanean:

ARTISTA X ARTISTA

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA, ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **IRA. 16 › AZA. 15**

# Susana Blasco

## *No rain, no gain*

Ilustrazioa



Susana Blasco. *No rain, no gain*-en fragmentoa

Susana Blasco diseinatzaile grafiko, ilustratzaile eta collage-egileak *No rain, no gain* proposatu du Fatxada proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren barruan, Arriquibarreko fatxadarako ad hoc sortutako hiru collagez osatutako triptikoa. Pieza bakoitza aurkitutako argazkiekin eginda dago, horiek ebaki eta fotograma eran berriz moldatuta, eta euri-intentsitate desberdinekin jariatzen den diskurtsoa sortzen du.

«Piezen abiapuntua ideia biltzaile bat da, beti dagoena, saihestezina, hain zuzen, Bilboko euria. Euria haren adierazpen literalenean eta likidoenean, baina era figuratiboan ere bai, ezbeharren metafora bezala, eta, orobat, bizitzarako beharrezko elementu arazle eta eraldatzaile moduan», azaldu du artistak.

Hainbat irakurketa-maila biltzen dira kontzeptu ardatz horretara. «Lehenengoa eraikinarekin lotuta dago zuzenean, eta barruan sartzeko gonbidapena izan nahi du, bertan babesteko. Triptikoa espazioarekin mimetizatzeko pentsatuta dago, beti hantxe egon izan balitz bezala ahokatzeko. Nola koloreengatik, hala norberaren eta besteren lehenaldiari, historiari, sustraiei egindako erreferentziagatik. Fikziozko memoria edo oroitzapen asmatu moduko bat da». Bigarren irakurketa-mailan, Bilbori buruz ari da, «euriaz, funts moduan, hiriko bizi-atal gisa hartuta, hirian bizi garenontzat. Eta, bisitatzen dutenentzat, ia souvenir bihurtu den ikur bezala». Hirugarren maila pertsonalena da, artistaren esperientzia pertsonalari lotzen zaiona, «Bilbok eta bertako euri eraldatzaileak niretzat izan duten esanahia, nire burua nola berrasmatu behar izan dudan, nire pieza guztiak berriz kokatuz, dena ongi ahokatuta, jarioak jarrai dezan».

Irailak 16 > Azaroak 15
Arrikibar Plaza (Fatxada)
Sarrera dohainik

Azaroak 13 > 15
Asteazkena > Ostirala

***Inausteko garaia* tailerra**
Informazio gehiago 100. or

susanablasco.com

@SusanaBlasco

@descalza

Susana Blasco



**SUSANA BLASCO**-k interes berezia du memoria, denbora, iragana, oroitzapenak, ahanztura eta emakumea ikertzeko, eta, maiz, merkatu txikietan lortutako argazki zaharrak edo aurkitutako objektu txikiak erabiltzen ditu abiaburu gisa.

Bestalde, lotura berezia du geometriarekin, zatiketarekin, errepikapenarekin, ordena konpultsiboarekin, eta zuri eta okrearen inguruko gama kromatiko berezi batekin.

**Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia** Zentrotik hedatzen da, eta beste espazio batzuekin jartzen da harremanetan, esaterako, **dendAZ** espazioarekin, parte-hartzen duten artistek egindako piezak aurkitu ahal izango baitituzu hor.

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA, ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **AZA. 15 > URT. 15**

# Ane Pikaza

Ilustrazioa



Ane Pikaza. *El jardín comeniñas*-en fragmentoa

Ane Pikaza artistak Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren lehen urtea itxiko du, amodio erromantikoa eta amodioak egindako sakrifizioak jorratzen dituen ‘La loca de Arriquibar’-i buruzko proposamenarekin. Aitor Saraiba, Higinia Garay, Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz eta Susana Blascoren proiektuen ondoren, artistak Fatxada nagusiko txanda hartuko du, eta urte hasieratik esku-hartze artistikoak egiteko erabiltzen den espazio hau eraldatuko du.

Proiektuaren inspirazioa Arriquibar plazaren historia bera da, hain zuzen, Arriquibarreko zoroa izeneko Bilboko pertsonaia enblematikoa. Andre horrek gau eta egun ematen zuen aulki berean eserita, artilezko txanoak ehuntzen, maiteminez, eta bere jantzi bitxiak zituen bereizgarri.

«Arriquibarreko espazioa bera oso esanguratsua zen niretzat, istorio hori bainuen gogoan, amak eta amamak hamaika aldiz kontatutakoa. Hortaz, ilustrazioaren bidez, forma eman nahi diot amodio erromantikoaren ideia horri, nola joan den aldatzen horretaz dugun ikuskera. Horixe da abiaburua, eta loredun kapela zoro horiek ere bai», azaldu du artistak.

Ane Pikazak honela aitortzen du: «Beti pentsatu nuen pertsona bat baino gehiago izan nahi nuela, bizitza bat baino gehiago bizi. Beharbada, horregatik erabaki nuen gustatzen zaidan guztia egitea. Arte Ederrak eta Antzerkia ikasi nituen, eta, denboraren poderioz, desira horrek oreka arraro batean bizitzea lortu du. Gaur egun, neure burua prestatzen jarraitzen dut, eta bi mundu bateratzen ditut: batzuetan oso hurbil daude elkarrengandik; beste batzuetan urrundik begiratzen diote batak besteari, eta noiz edo noiz eskutik lotuta joaten dira. Leiho horretatik atera behar da nire lanak ikusteko. Egin dezagun amets».



**ANE PIKAZA** (Bilbo 1984). Arte Ederretan eta Antzerkian lizentziatu zenetik, ilustrazioa eta arte eszenikoen arloak bateratu ditu. Profil multidiziplinarioa du, eta horrek aukera eman dio era askotako formatuak, aplikazioak eta harremanak ikertzeko, ilustrazioa eta arlo paraleloak (hala nola antzerkia eta bideo-jokoak) jorratuz. Egin dituen lanen artean, *Los ríos de Alice* bideo-jokoa eta Kabia antzerki-konpainiarentzat egin dituen bisualak nabarmentzen dira. Ibilbide luzea egina du, besteak beste, antzerkiko eta jaialdietako kartelekin, erakusketekin eta aldizkariekin elkarlanean. Eszenen eta ametsen unibertso bat, geure buruen aurrean esertzen gaituena.

Azaroak 15, 2019 > Urtarrilak 15, 2020

Arrikibar Plaza (Fatxada)

Sarrera dohainik

anepikaza.com

@AnePikaza

@anepikaza

ane pikaza

Ane Pikaza Ereño

**Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia** proiektuak jarraipena izango du 2020an, visual thinking eta graphic recording arloetan aditua den **Pernan Goñi** artista ilustratzailearekin.

# Nestor Lizalde

## *Akelarre elektrikoa*

Argi interbentzioa terrazan



Néstor Lizalderen *Akelarre Elektrikoa* lanak Azkuna Zentroko terraza pizten du gauero. Baliabide berriak deitutakoen bidez, argi-instalazio honek artearen munduan azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu, eta horrela hizketaldi bat sortzen du esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu. Arte elektronikoko pieza honek eraikinaren goialdeko arkitekturan esku hartzen du, ordenagailu bidez kontrolatutako argiztatze-sistema bat erabiliz.

«Eguzkia ostenduta, argiak azalduko dira iluntasunaren babesean. Argi-matrizeak mugiarazi egingo du egitura, errituetarako espazio gisa paratutako jatorrizko 44 arkuk eratutako atala. Su elektrikoak lehian arituko dira elkarren artean, beren irudikapenak deskribatzeko, leize-zuloko mitoen gisa. Itzalek eta distira dirdaitsuek dantza egingo dute, gauaren mihisean formak zizelkatzen», aurreratzen du Nestor Lizaldek.

Uztailak 4, 2019 > Urtarrilak 26, 2020

Urriaren 26a arte:
19:00 - 22:00

Urriaren 27tik urtarrilaren 26a arte:
18:00 - 21:00

Astelehenetik larunbatera, igandeak itxita

Terraza

Sarrera dohainik



**NESTOR LIZALDEREN** lanak artearen munduan baliabide berriak deitutakoen bidez azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu. Profil tekniko nabaria duen artista honek hizketaldi bat sortzen du esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu.

Nestor Lizaldek ikerketa praktikoa egiten du, ikusentzunezko forma eta euskarri berrien sorkuntzan oinarrituta, programazioa, diseinu elektronikoa, fabrikazio digitala eta irudiko sistema optikoak erabiliz. Proiektu hauen bidez, imajinario bat eraikitzen du, zientzia fikzioaren eta surrealismoaren arteko bide erdian, murgiltzeko unibertso bat, kezkagarria eta, aldi berean, hipnotikoa.

10.000 lagun baino gehiago izan dira terrazan instalazioaz gozatzen

**URR. › URT.** (astr.)

# consonni radio Az-rekin




Imagen: Rosa Llop

consonni argitaletxeak, Az-ko Kolektibo Egoiliarra den aldetik, consonni radio Az-rekin sortu du, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez.

Hurrengo hilabeteetan, deialdi publikoaren bidez hautatutako azken programak izango ditugu irratian entzungai:

*Voces que caminan* Gabriel Villotarena da, eta soinu-dokumentalaren eta saiakeraren arteko formatu hibridoa proposatzen du. Musikak, ahotsak eta landako grabazioak bateratuz sortutako soinu-collagea du zati askotan; eta isiltasunaren bilaketan eta gorputzak mugitzean ateratzen duen soinuaren artean dabil.

*Phoenix Ragazza* Jone Uriarte eta Lur Olaizolaren lana da. Euskara hutsean egindako programa honek zinema eta irratiaren arteko erlazioa proposatzen du ikuspegi feministatik, begiak eta begirada entzute bilakatzeko.

*T.R.A.U.M.A.* Magda De Santok eta Duen Sacchik gidatutako irratsaioa da, queer/Kuir/Cuir komunitateko artista, ikerlari, kuratore, aktibista, idazle, sortzaile eta langileen diasporako eta migrazioko esperientziatik abiatuta sortutako kultura publikoak partekatzera gonbidatzen duena.

Bestalde, consonni radio Az-rekin-en emankizun-zerrendan finkatuta dauden programa hauek jarraipena izango dute: *Voces en el jardín*, Alicia San Juanekin; eta ¿*Qué haría Barbarella?*, Arrate Hidalgorekin eta Laura Lazcanorekin.

**Entzun gaitzazu streaming bidez, edo zatoz saioren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irrati-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Eta emanaldiren bat entzuterik ez baduzu, ez kezkatu: online ere entzun gaitzakezu, consonni-ren webgunean, AZrenean, edo ivoox eta iTunes moduko irrati-plataformen bidez.**

consonni

Urria > Urtarrila
Asteartero

18:00
Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

# 2019 Eremuak Jardunaldiak

*Natura/k*



Eremuak-ek, arte garaikidearen esparruko ekoizpenerako zabaldutako programa izanik, urteroko jardunaldien beste edizio bat antolatuko du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, gaurkotasun artistikoko kontu garrantzitsuen inguruko gogoeta eta eztabaida eragiteko asmoz, nola Euskal Herrian, hala esparru zabalagoan.

Horren harira, 2019 Eremuak Jardunaldien helburua da sentsibilitate, jarrera eta adierazpen jakin batzuei oihartzuna eskaintzea, hain zuzen, aspaldidanik natura izenez ezagutu ohi den horren hainbat alderdirekin gutxi-asko harreman nabarmena izan duten horiei, ikuspuntu askotatik abiatu eta era askotara gauzatu arren.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, «dena den, kontzeptu horrek nolako arazoak eragin ditzakeen jakitun izanda, aukeratutako gai-ardatza gizatiarraren eta ez gizatiarraren, bizidunen eta bizigabeen, artifizialaren eta ustez naturala denaren arteko harremanen berezko konplexutasunak eragiten dituen jarrera sinplifikatzaile batzuei eskainitako kantu huts bihur ez dadin, egokia iruditu zaigu terminoari pluraltasunaren ñabardura eranstea (naturak, -k eta guzti, edo naturalezas -s eta guzti), horrek aukera emango baitigu artearen munduko errealitatea eta sortzen dituen edo aurre egiten dien natura guztiak aintzat hartzeko».

## PROGRAMA

### Urriak 17, osteguna
**Lantegia 1**

17:00: Aurkezpena
17:15: Sergio Prego
17:45: Latitudes (Max Andrews eta Mariana Cánepa Luna)
18:15: Atsedena
18:30: Natalia Valencia Arango
19:00: Galderen txanda
19:30: Aurkezpena: *eremuak#6* aldizkaria + *Cuaderno de artista* (Iratxe Jaio)

### Urriak 18, ostirala
**Lantegia 1**

11:00: Fernando García-Dory
11:30: Azala (Idoia Zabaleta)
12:00: Fundación Cerezales Antonino y Cinia (Alfredo Puente)
12:30:Galderen txanda
13:00: Yael Messer
17:00: Julia Spinola
17:30: Jon Otamendi
18:00: Atsedena
18:30: Borbála Soós
19:00:Galderen txanda
19:30: Bik Van Der Pol

### Urriak 19, larunbata
**Lantegia 1**

11:00: Ana Laura Aláez
11:45: María Ptqk

**Golem Zinemak**

12:45: Kontzertua: Hidrogenesse

Urriak 17 > 19
Osteguna > Larunbata

**Jardunaldiak:**
Lantegia 1
Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

**Hidrogenesseren kontzertua:**
Golem Zinemak
Sarrera dohainik gonbidapenarekin, jaso Az Infon

**Eremuak - Arte garaikidearen esparruko ekoizpenerako zabaldutako programa**. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao** izan da Eremuak programa egiteko erakunde.

Kontsultatu programa osoa hemen:
azkunazentroa.eus
eremuak.net

eremuak
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA — DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Sra. Polaroiska

## *Emakume jakintsuen kontseilua*



Sra. Polaroiska. *No hay edad para el ritmo*. Azkuna Zentroa 2019

Artista Az Kideak diren Sra Polaroiskako kideak azken urteetan garatzen ari diren lan-ildoaren harian, genero-ikuspegitik erreferenteak sortzen eta ahalduntzen aritu dira bereziki, eta, orain, kolektibo artistikoak *Jakintsuen kontseilua* zikloa proposatzen digu. Sei topaketako zikloa adineko emakumeekin, hainbat esparrutako profesionalak guztiak: antropologoak, fisikariak, idazleak, ingeniariak, biologoak, musikagileak, zinegileak, artistak, poetak, irakasleak, ile-apaintzaileak, jostunak, erizainak, bizizaleak... Elkarrizketa-sorta baten bidez, emakume horiek euren bizitzako eta laneko esperientziak helaraziko eta partekatuko dizkigute, erreferente bihurtzeko moduan. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamen bat da.

Antolaketa intimo eta atsegin baten bidez, Sra Polaroiskak proposatu duen esperientzian, konplizitatea eta estimua jakintza eskualdatzeko tresna dira. Saio bakoitzean, gonbidatuaren araberako leitmotiv bat dago -edari edo janari bat-, esate baterako, egoskinak, teak, infusioak, edabeak, pastak eta askariak, etxeetan eta aretoetan betidanik egin izan diren bilerei ohore eginez, horietan aholkuak eta jakintzak partekatzen baitziren. Formula horrekin, artistek azpikoz gora irauli nahi dute bilera eta espazio horiek baliogabetzeko eta mespretxatzeko joera; berreskuratu egin nahi dituzte, eta esparru publikora zabaldu, era horretan euren balioa aldarrikatuz.

**Hurrengo kontseilua:**
Abenduak 10 asteartea

Hurrengo emakume jakintsuaren izena gure webean argituko dugu: azkunazentroa.eus

cargocollective.com/srapolaroiska

sra polaroiska



**ALAITZ ARENZANAK** eta **MARIA IBARRETXEK** eratzen dute **SRA POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Beren obrak zinema esperimentala, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofía Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

Artista Az Kidea programak sorkuntza bultzatzeko ildo berri bat da, zeinek laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei.

# Oscar Gómez Mata

## *Deriben katalogoa*



Artista Az Kidea den Oscar Gómez Matak, Espe Lópezekin batera, *Deriben katalogoa* garatzen jarraitzen du. Hainbat deriba biltzen dira katalogo horretan, eguneroko paisaia urbanoak behatzeko eta esploratzeko xedez; azken helburua herritarrak artelana berreskuratzea eta bereganatzea da: herritartasuna eta kultura esperientzia bakar batean urtuko dira. Zentroa bestelako esperientzia baten bidez ezagutzeko proposamenak dira deribak, edo hirian zehar bidaldi bakan batean murgiltzekoak, ohar eta argibide batzuk jarraituta. Oinez "beste era batera" ibiltzeko modu bat da hau, erabiltzaileek diotenaren arabera, ibilera horrek «pentsarazi egiten dizu zu zeu zeure pausoekin eta ustekabeko topaldiekin gozatzeko gai den oinezkoa zarela, gogoan hartzeko nor garen eta norantz goazen, nahiz eta inork ere ez zuzendu gu».

Jendea artatzeko gunean *Deriben katalogoa* dago oraindik eskura erabiltzeko moduan. Bitartean, bi artistek etapa berria hasi dute: egindako ibilaldi guztien ondoren, erabiltzaileengandik jasotako sentsazioen eta gogoeten erregistroak bilduko dituzte, eta horiei forma emango diete. Era horretan, forma emango diote herritarren jarduera honetako esperientzien artxibo bati.

Egunero

Az Info

**Ordutegia:**

Astelehenetik ostiralera: 8:00 - 22:00

Larunbatak, igandeak eta jai-egunak: 9:00 - 22:00

alakran.ch

L'Alakran Oscar Gómez Mata



**OSCAR GÓMEZ MATA**

(Donostia, 1963) Suitzan bizi eta lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jarduereetan, eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide izanik, ikuskizunak sortu zituen horiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak sinatu ditu bertan. Oscar Gómez Matak lan pedagogikoa ere garatu du Suitzako Serge Martin antzerki eskolan eta Frantziako Les Chantiers Nomades-en. 2013. urteaz geroztik, arauzko irakaslea da Manufacture-n, Suitzako antzerki-eskola frantsesean (HETSR). Suitzako antzerki sari nazionala eskuratu zuen 2018an.



*Mamma Roma* (1961). Arg.: Arco Film S.R.L

# Zinemaren historiako 50 harribitxi

Urriak 30 > Abendak 19
Asteazkenak eta ostegunak

Golem Alhóndiga Zinemak

4,5€ / 3,5€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

**Hiruhileko honetan, zenbait film hautatu proposatzen dugu, kontakizunen erdian emakumezko aktore handiak jartzea erabaki zuten maisu handiek zuzendutakoak**

Hilabeteekin aurrera joan ahala, eta ikusle ugari etortzeak eragindako arrakastarekin -eskerrak eman nahi ditugu horregatik, idatziz ere bai-, hurbil dugu *Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloko berrogeita hamargarren titulua. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zinematekak urtarriletik ikusgai duen zinemaren historiako pelikulen bilduma honek zenbait film hautatu proposatzen digu hiruhileko honetan, hain zuzen, beren ibilbideko une jakin batean kontakizunen erdian emakumezko aktore handiak jartzea erabaki zuten maisu handiek zuzendutakoak.

Beharbada ez dira zuzendari hauen filmik onenak izango, eta, batzuetan, agian ez dira emakumezko aktore hauen interpretaziorik onenak izango. Alabaina, bien arteko baturak, arte- eta ekoizpen-talde handien ezinbesteko esku-hartzearekin, ohiz kanpoko pelikulak sorrarazi zituen, hala nola *Mamma Roma*, Pier Paolo Pasolinik zuzendutako bigarren film luzea, ondorengoek gehienbat Anna Magnaniren emanaldi ahaztezinari esker gogoratua; *Gertrud*, Danimarkako Carl Theodor Dreyer-ek zuzendutako maisu-lana, eta haren ibilbideko testamendu bikaina, nahiz eta film gehiago nahi izango genituzkeen Nina Pens Rode-ren ondoren; *L'année dernière à Marienbad*, Alain Resnais zuzendariak "liluraren mekanismoei buruzko dokumental" gisa definitua, eta Delphine Seyrig zinemako argietara atera zuena lehen aldiz; My fair lady, Audrey Hepburn George Cukor-en aginduetara dagoela; eta *Les demoiselles de Rochefort*, Jacques Demy-ren musikal handia, Françoise Dorléac eta Catherine Fabienne Dorléac ahizpen (Deneuve abizen artistikoren bidez ezagunagoen) ondoan eta Michel Legrand-en musikaz.

Bestalde, urteko azken hiruhileko honetan, aukera izango dugu Billy Wilder gidoilari eta zuzendariaren azken film luzeetako bat berrikusteko, hain zuzen, *Fedora*, Marthe Keller-ek hezurmamitua, eta pantailan William Holdenek lagunduta; eta, orobat Kenji Mizoguchi maisuaren estiloko destilaziorik perfektuenetako bat begiesteko, hau da, Yang Kwei-fei (*Yohiki*) enperatriza, Machiko Kyok hezurmamitua, alegia, Akira Kurosawak zuzendutako *Rashomon* eta beste maisu-lan batzuetako eta Mizoguchiren beraren *Ilargi zurbilaren ipuinak* (Ugetsu Monogatari) laneko emakumezko izarrak.

Rubén Corral

# ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI PROGRAMA

## Fedora (1978)

**Urriak 30., asteazkena / 17:00**
**Urriak 31, osteguna / 19:30**



Arg.: Imdb

Fedora aktore famatua Parisen hil da, tren batek harrapatuta. Hiletan, zinema-ekoizle bat hausnartzen hasi da azken bi asteetan gertatutakoaz. Aktorearen heriotzan zenbateko eragina izan ote duen galdetzen dio bere buruari. Dena hasi zen Korfura joan zenean hura ikustera, orduan jakin baitzuen uharte pribatu batean bizi zela, erizain batekin, kondesa zahar batekin, eta gazte itxura harrigarria izan zezan lortzen zuen zirujau plastikoarekin.

114' / DCP / Frantzia
Z: Billy Wilder
A: William Holden, Marthe Keller, Hildegard Knef, José Ferrer, Frances Sternhagen, Mario Adorf, Stephen Collins, Henry Fonda, Michael York

## Mamma Roma (1962)

**Azaroak 6, asteazkena / 17:30**
**Azaroak 7, osteguna / 19:30**



Arg.: Imdb

Mamma Roma prostitutak burges txikiek izaten duten ongizatea lortzea du amets. Bere babeslea ezkondu ondoren, auzo egoki batera joaten da bizitzera, Hector semearekin. Fruta saltzeko postu bat du herri-merkatuan.

110' / 35mm / Italia
Z: Pier Paolo Pasolini
A: Anna Magnani, Franco Citti, Ettore Garofolo, Silvana Corsini, Luisa Orioli, Paolo Volponi, Luciano Gonini, Vittorio La Paglia

## L'annèe dernière à Marienbad (1961)

Lehengo urtean Marienbad-en

**Azaroak 20, asteazkena / 17:30**
**Azaroak 21, osteguna / 19:30**



Arg.: Rialto Pictures

Hotel barroko batean, arrotz bat (X) ezkondutako emakume bat (A) limurtzen saiatzen da, senarra (M) utzi, eta berarekin alde egin dezan. Aurreko urtean Marienbaden elkar ezagutu zutenean emakumeak egin zion promesean oinarritzen da horretarako; alabaina, itxuraz, emakumeak ez du elkartze hori gogoratzen.

91' / 35mm / Frantzia
Z: Alain Resnais
A: Delphine Seyrig, Giorgio Albertazzi, Sacha Pitoeff, Françoise Bertin, Luce Garcia-Ville, Pierre Barbaud, Françoise Spira.

## My fair lady (1964)

**Azaroak 27, asteazkena / 17:00**
**Azaroak 28, osteguna / 19:00**



Arg.: Warner Bros. Pictures

1912ko gau euritsu batean, Henry Higgins hizkuntzalari xelebre eta esnobak Eliza Doolittle ezagutuko du, bioleta-saltzaile zarpail eta baldar bat. Lore-saltzailearen hizkera trauskilak hainbesteko interesa piztuko dio Higginsi, non apustu arriskutsu bat egingo baitu adiskide duen Pickering koronelarekin: konpromisoa hartuko du sei hilabeteko epean ingelesez zuzen hitz egiten eta goi-mailako dama baten itxurak egiten irakasteko.

170' / Estatu Batuak
Z: George Cukor
A: Audrey Hepburn, Rex Harrison, Stanley Holloway, Wilfrid Hyde-White, Gladys Cooper, Jeremy Brett, Theodore Bikel

## Yôkihi (1955)

Yang Kwei Fei enperatriza

**Abenduak 4, asteazkena / 17:30**
**Abenduak 5, osteguna / 19:00**



Arg.: Imdb

VIII. mendeko Txinan girotua. Amodiozko istorioa. zenbait urte lehenago alargundutako Hsuan Tsung enperadorearen eta bere emaztearen antza handia duen emakume gazte plebeio baten artekoa.

98' / Japonia
**Z:** Kenji Mizoguchi
**A:** Machiko Kyô, Masayuki Mori, Sô Yamamura, Eitarô Shindô, Eitarô Ozawa, Haruko Sugimura, Yôko Minamida, Bontarô Miyake

## Les demoiselles de Rochefort (1967)

Rocheforteko andereñoak

**Abenduak 11, asteazkena / 17:00**
**Abenduak 12, osteguna / 19:30**



Arg.: Imdb

Musika-irakasle diren bi ahizpa (Deneuve eta Dorléac) Rochefort herri txikian bizi dira, eta maitasun handi bat topatzearekin egiten dute amets. Hollywoodeko urrezko garaiko musikal handiei egindako omenaldia.

125' / Frantzia
**Z:** Jacques Demy
**A:** Catherine Deneuve, Françoise Dorléac, Danielle Darrieux, George Chakiris, Gene Kelly, Michel Piccoli, Jacques Perrin, Henri Crémieux

## Gertrud (1964)

**Abenduak 18 , asteazkena / 17:30**
**Abenduak 19, osteguna / 19:30**



Arg.: Imdb

Gertrud emakume heldu eta ameslariak amodio absolutua bilatzen du, baina haren esperientzia sentimentalek porrot egiten dute beti. Musikari gazte batekin maitemintzen da, baina Gertrud abentura iragankor bat besterik ez da harentzat. Bestetik, poeta den senargai ohi bat azalduko da berriz Gertruden bizitzan.

116' / Danimarka
**Z:** Carl Theodor Dreyer
**A:** Nina Pens Rode, Bendt Rothe, Ebbe Rode, Baard Owe, Anna Malberg, Axel Strobye

### INFORMAZIOA

**Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA).**

**Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.**

**+ INFO: azkunazentroa.eus**

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesede eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko.

Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu.

Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen.

Kontsultatu ziklo osoaren programa hemen: azkunazentroa.eus

**LABURDURAK**
**A: Aktoreak | Z: Zuzendaria**

Zikloa urtarrilaren 23an bukatzen da. Kontsultatu *Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloko programa osoa azkunazentroa.eus webgunean edota zikloko eskuliburuan.



*Global windshield, the musical* (2018)

# Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz

**Urriak 30 > Abenduak 19**
**Asteazkenak eta ostegunak**

Golem Alhóndiga Zinemak

4,5€ / 3,5€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

Programa publikoa

OPEN CODES

**Aro post-digitalean dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloa, *Open Codes. We are data* erakusketaren esparruan sartu**

Playtime Audiovisuales-ek komisariatua (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel)

*Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz* aro post-digitalean dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloa da. Artelanen sorta bat, etorkizunaren inguruan gogoeta egiteko, era kolektiboan genero-ikuspegitik pentsatzeko. Orainetik abiatuta, beste mundu batzuk izan daitezkeela birpentsatzeko; baina, mundu horiek egungo gizartetik eratorriak izango direnez, kontzientzia eta jarrera kritikoa izan behar ditugu.

Hamar saiotan antolatutako ziklo honetan aurkezten diren lanetako zuzendari gehienak emakumeak dira, sentsibilizazio hori beharrezkoa delako, eta argi dugulako: 'the future is female'. Gaiak queer izaeratik lantzen dituzten filmak dira, zinema-saiakera eta aktibismo politikoa barnean hartuta. Arte garaikidearen parametroen barruan kokatuta dago, diziplina desberdinak era hibridatuko jarioan txertatuz, formalki arriskatuz eta proposamen bakoitza, azken batean, ikusleak berak osatuz.

Zikloa hasteko, klasiko modernoen saio bikoitz bat izango da, zientzia fikzioko generoaren baitan, Chris Marker zinemagile esperimentalaren lanekin. Ondoren, arte bisualetako Regina de Miguel artistaren lana protagonista duen saioa izango da. Hirugarren saioan, Internet ondoko aroko sexu-praktiketan barneratuko gara, Shu Lea Cheang artista eta aktibista queer-aren eskutik; hurrengo jardunaldian, Isa Willinger zuzendariak maitasun erromantiko berriari eta harreman sozialei eskainitako begiradarekin osatuko da gai hori. Zikloaren erdira iritsiko gara Momu & No Es kolektibo artistikoaren proposamen arriskatu eta jostagarriarekin: beren film laburren bilduma bat eskainiko dute, B serieko Sci-Fia, pop kultura, elektronika, 3Da eta muntaia eta postprodukzio digitaleko geruza mordoa konbinatuta. Ondoren, 'Afrofuturismo' korronte literarioa eta filosofikoa helduko da, mundua ikuspuntu dekolonial eta, horrenbestez, antipatriarkal batetik birpentsatzeko bi artelan giltzarrirekin: Sun Ra musikariak berak eta beretzat sortutako *Space is the Place* film luzea da bata, eta The Otolith Group taldearen *In the Year of the Quiet Sun* film laburra, bestea. Zazpigarren saioan, omenaldia egingo diegu Ursula K. Le Guin idazleari eta haren mundu fantastikoei; horren ostean, gure aldian munta handien duen zuzendarietako bat iritsiko zaigu, Lucille Hadzihallilovic. Zikloa bukatzeko, ez-fikzioko bi film luze izango ditugu, eta, horiekin, gogoeta egingo dugu orainaldiaz, etorriko dena ulertu ahal izateko. Lehenengoa Jennifer Baichwalek zuzendutako lana da, eta zikloko azken filma, berriz, Maria Ruido artista eta ikerlariak ondutakoa.

Playtime Audiovisuales (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel)

# ZINEMA IREKIA. ETORKIZUN BERRIA ASMATUZ PROGRAMA

### 1. saioa
### Chris Marker: saiakera-filmak pultsua hartzen dio etorkizunari (zientzia fikzioko klasiko-modernoa)

**Sans soleil (1983) + La Jetee (1962)**

Urriak 30, asteazkena
19:00 / Bastida Aretoa

Urriak 31, osteguna
17:00 / Golem Zinemak

## Sin sol (Sans soleil) (1983)



Sans soleil filmak gainditu egiten ditu zinema 'dokumentaltzat' jotzen zenak zituen mugak. Fikziokoa ez den zinta zoragarri honetan, hausnarketa egiten da irudiaz eta memoriaz, bidaia-eguneroko gisa antolatuta. Emakume ezezagun batek Sandor Krasna kamerako operatzaileak bidalitako gutunak irakurtzen ditu. Horrek, bidaietako irudiak erregistratuz, galdera egiten dio bere buruari memoriaz eta oroimenaren zereginaz -«oroimena ez baita ahanzturaren aurkakoa, aurrez aurrekoa baizik»-, bihotza taupadaka jartzen duten gauzen bere zerrenda eratzeko, Sei Shônagon-en gisan.

100' / Dokumentala / JBGA / Frantzia
**Z**: Chris Marker

## La Jetée (1962)



Chris Marker-ek *La Jetée* filmarekin egin zuen nazioarteko jauzia film-zuzendari gisa. Saiakera-zinemako eta zientzia-fikzio post-apokalitiptikoaren lan gorena da. Footage film bat, memoriak duen botereari buruzkoa, argazki finkoak soilik erabiliz kontatua. Gizon bat bere maitearen oroitzapena berreraikitzeko ahaleginean ari da, Hirugarren Mundu Gerrako garaietan. Zientzia-fikzioko film berezia da, eta Terry Gilliam-en *12 Monkeys* ospetsuaren inspirazio-iturria izan zen.

28' / Film labur dokumentala / JBGA/ Frantzia
**Z**: Chris Marker / **A**: Hélène Chatelain, Davos Hanich

### 2. saioa
### Zientzia eta arte bisualak. Regina de Miguelen obra

**Una historia nunca contada desde abajo (2016) + Nouvelle science vague fiction (2011)**

Azaroak 6, asteazkena
19:30 / Golem Zinemak

Azaroak 7, osteguna
17:30h / Golem Zinemak

## Una historia nunca contada desde abajo (2016)



Offeko ahots iradokitzaile eta oniriko batek gidatzen gaitu hasierara, gauza guztien hastapenetara egindako bidaia batean barrena. Istorio berezi honen abiaburua Cybersyn edo Synco da, Stafford Beer ameslariak 1971-73 artean Txilen garatu zuen 'askatasunaren makina', Pinocheten estatu-kolpeak zapuztutakoa. 'Zientziaren tresnak herriari eman nahi zizkion' makina honen historiaren bidez, narratiba bat sortzen da, dokumental historiko, zientzia, politika fikzioa eta erretratu psikologikoaren artean.

70' / EB / Espainia
**Z**: Regina de Miguel

## Nouvelle science vague fiction (2011)



Pantaila bikoitzean egituratutako obra honetan batera agertzen dira mundu erreala eta fikziozkoa. Ezkerraldean, erreala agertzen da, zientziak ordezkatua, egiaztatzeko moduko jakintza objektibo gisa. Hala, ibilbide bat egiten da arlo lurtarrenetik hasita, Cerknica (Eslovenia) lakuko harkaitzen azterketa geologikotik, Astroneraino, soinu-uhinen bidez osorik ezin har daitezkeen objektu urrunak aztertzen diren tokiraino. Eskuinaldean, fikzioa, zientzia-fikzio agertzen da, eta, bertan, artxiboko hainbat irudi, munduaren amaiera izan daitezkeen aukeren deskribapen luze batekin. Bidaia sakon honen emaitza

dagokigun filma bera da, gidatzen gaituen offeko ahots batek kontatua.

21' / EB / Espainia
Z: Regina de Miguel

### 3. saioa
### Cybersexua

Azaroak 20, asteazkena
19:30 / Bastida Aretoa

Azaroak 21, osteguna
17:30 / Bastida Aretoa

## Fluidø (2017)



Arg: J. Jackie Baier

Taiwango multimedia zinemagile eta artista aktibista Shu Lea Cheangek Berlinen osorik filmatutako lan honek 2017. urtean izan zuen estreinaldia Berlinaleko Panorama atalean. Gorputz-isurien ekoizpenaren eta esplotazioaren kontrola lortzeko borroka du ardatz. Forma aldetik, opera orgiastikoa da. Gorputzen, sekrezioen, jardunen eta sexu-harremanen arnasarik gabeko txanda bat, maiz nagusi den ekonomiaren zerbitzuan egina. Drama ezohikoa da eta berariaz parapornografikoa. Cyberpunk eta postinterneteko estetikak dituen zientzia-fikziozko istorio bat, non kondizio sexualaren arteko mugak etengabe lausotzen diren.

Ez da gomendagarria 16 urtetik beherakoentzat
80' / JBGA / Alemania
Z: Shu Lea Cheang
A: Bishop Black, Kristina Marlen, William E. Morris, Alexander Geist, Aérea Negrot, Sadie Lune, Caprice Crawford, Antonio Onio

### 4. saioa
### Cyber erromantizismoa

Azaroak 27, asteazkena
20:00 / Golem Zinemak

Azaroak 28, osteguna
17:30 / Golem Zinemak

## Hi, Ai - Love stories from the future (2019)



Giza itxurako robotak maila berri batera iritsi dira, gure planetan eta bizitzetan. Spike Jonze-ren *Her* lanaren ildoan, baina esperientzia robotikako 5 urte gehiago izanda, Isa Willinger-ek beste urrats bat egiten du aurrera amodiozko istorio ospetsu honekin, ez baita fikzio dramatiko bat, baizik eta ez-fikzioaren esparrutik eraikitako istorioen sail bat. Behin espekulazio hutsa izan zen guztia orain errealitatea da.

85' / JBGA / Alemania
Z: Isa Willinger

### 5. saioa
### Momu & No Es duo artistikoari eskainitako monografikoa: post-internet aroko istorioak

**Mohai (2010) + The soft mud and Fanboy (2012) + Life of our progressive thinkers (2013) + Global windshield, the musical (2018)**

Abenduak 4, asteazkena
20:00 / Erakusketa Aretoa

Abenduak 5, osteguna
17:30 / Erakusketa Aretoa

## Mohai (2010)



Nane eta Carina aski pertsonaia bitxi eta outsider-ak dira, eta, hutsik dagoen beren existentzia hobeto jasateko, totem inka bat erosten dute bazar txiki batean, "Mohai" deituko dena. Etxera eramateko bidean, era askotako gorabehera zoroak izango dituzte, eta, hala, une eta egoera surrealistak eta dibertigarriak sortuko dira. Elkarrizketa absurdo eta solte batzuk izango dira, bata bestearen atzetik, eta horietan protagonistek zalantzan jarriko dute Mohai haien ondoan izatea eta etorkizunean zoriontasuna lortzea. Nola sartuko da totema haien bizitzetan?

13' / JB / Holanda
Z: Momu & No Es

## The soft mud and Fanboy (2012)




Musika elektronikoaren aitzindaria den Silverio artista ospetsuaren zale gazte bat –musika elektroniko-dance-primitibo gisa ulertua Latinoamerika osoan–. Aldi berean, Vladimir (Fanboyk ) harreman bat du Casio auzokoarekin, idolo musikalekiko amodioa

bereizgarri duena; izan ere, ‘jende guztiak jarraitu behar dio beten bati’. Gazteen soap-opera baten gisa, hiruren artean sortzen diren loturak agertzen dira, gurtzeuneak eta asperraldiak, baita hiruren arteko afektuak ere, Vladimirrek ekoizten dituen objektuen, kanta- eta bideoklip-zatien bidez.

16’ / JB / Holanda
**Z**: Momu & No Es

## Life of our progressive thinkers (2013)



Etorkizunean gaude, aski etorkizun hurbilean, familiarrean ere bai. Offeko ahots batek egungo egoeran eragina izan duten gertakizunak deskribatzen ditu. Telebistako dokumental edo B Serieko sci-fi film batean bezala, Momu & No-k Robert Haag eta Carlos Blanco pentsalari progresisten lekukotasunak aurkezten dizkigu, Tovar-en (Kainoi Handian) bildu aurrekoko minutukoak; hortik sortu zen bioteknologia eta nanoteknologiaren garapena, eta, beraz, humanitatearen eboluzio-prozesuko bigarren maila.

17’ / JBGA / Holanda
**Z**: Momu & No Es

## Global windshield, the musical (2018)



Obra osoa eraikita dago autobide batetik doan autoko haizetakoaren atzetik abiatzen den irudi sintetikoarekin. Hortik aurrera irudiak, bideoak, 3D animazioa eta jatorrizko soinu-banda kateatzen dira, eta bidaia mental bat birsortzen dute, Interneteko irudiak kontsumitzean izaten dugunaren antzekoa den kontenplazio-egoera sortu nahian. «Proiektua asmatu genuenetik, ideia argia genuen: ikuslea izatea protagonista, eta sentitu ahal izatea fisikoki Internet barruan dagoela eta pantaila barrutik zeharkatzen duela», egileek diotenez.

19’ / JBGA / Holanda
**Z** : Momu & No Es

## 6. saioa
## Afrofuturismoak: historia kolonialaz zientzia fikziotik berriz hausnartu

### Space is the place (1974) + In the year of the quiet sun (2013)

**Abenduak 11, asteazkena**
**19:30 / Golem Zinemak**

**Abenduak 12, osteguna**
**17:30 / Golem Zinemak**

## Space is the place (1974)



Jazz musikak bultzatutako ontzi hori batean espazioa zeharkatu ondoren, Sun Ra Lurrera hurbiltzen da. Planeta berri baten bila dabil, arraza beltzak aurrera egin ahal izan dezan bertan, eta ideia horrekin lurreratzen da Kalifornian. Hor, baina, superbilau bat topatuko du, Ray Johnson-ek interpretatutako Overseer, biztanle beltzak esplotatzen dituena NASArekin eta FBIrekin batera.

85’ / JBGA / Estatu Batuak
**Z**: John Coney
**Idazlea, protagonista eta jatorrizko musikaren egilea**: Sun Ra

## In the year of the quiet sun (2013)



Saiakera film honek hamaika urtez behin eguzkian izaten den gertakariaren izena hartzen du: eguzkiaren azalera behar adina hozten da, behatokiek eguzkiaren jarduna aztertu ahal izan dezaten. 1964ko azarotik 1965eko azarora arte, munduko herrialdeek -orain dela gutxi independentzia eskuratutako estatu afrikar batzuek ere bai-

zigiluak jaulki zituzten eguzkiaren azalera ikertzera bidalitako lehen espedizio zientifikoaren oroitzapena ospatzeko. Nagusitasun historiografikoaren aurrean,ikertzaileen eta artisten The Otolith Group taldeak herrialde afrikarrentzako independentziaren kulturaren sorrera hartzen du ardatz.

33' / VOSE / Gran Bretaña
D: The Otolith Group

## 7. saioa
## Mundu fantastikoa

### Los mundos de Ursula K. Le Guin (2018) + Notre Dame des hormones (2014)

**Abenduak 18, asteazkena**
**19:45 / Golem Zinemak**

**Abenduak 19, osteguna**
**17:30 / Golem Zinemak**

### Los mundos de Ursula K. Le Guin (2018)



Los mundos de Ursula K. Le Ursula K. Le Guinen munduak da idazlearen bizitza biltzen duen lehen film luze dokumentala; bidaia bat egiten du haren ibilbidean eta munduetan -erreal eta fantastikoetan- barrena. Ikusleek bat egiten dute egileak bere burua aurkitzeko egindako bidaia intimo honekin, eta storytelling-ak dituen ahalmen eraldatzaileetan sakontzen dute, horren bidez ate berriak zabaltzen baitzaizkio irudimenari, orainaren geldialdietatik harantz eraman, eta erabat berria den horretan sartuko gaituztenak.

65' / JBGA / Estatu Batuak
Z: Arwen Curry

### Notre Dame des hormones (2014)



Ursula K. Le Guin idazlearen eleberri batetik aterea bezala, fantasia hau agertzen da, gure garaiko zinemagilerik ezohikoenetako baten -Betrand Mandicoren- eskutik. Natura jori bete-betean kokatutako landetxe batean, bi emakumezko aktore, eta "Gauzarekin" -megapezoi jostalari edo falo txiki bat duen eta zezelka egiten duen izaki iletsu batekin- duten desirako, obsesioko eta zaintzako harremana, eta, orobat, harekiko topaketa horrek haien arteko harremanetan duen eragina, muturreko borroka bat sortuko baita 'Gauzaz' jabetzeko.

31' / JBGA / Frantzia
Z: Betrand Mandico
A: Elina Löwensohn, Nathalie Richard, Michel Piccoli

## INFORMAZIOA

**Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.**

**+ INFO: azkunazentroa.eus**

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesede eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko.

Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu.

Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen.

Kontsultatu ziklo osoaren programa hemen: azkunazentroa.eus

**LABURDURAK**
**A: Aktoreak | Z: Zuzendaria**
**JB: Jatorrizko Bertsioa**
**JBGA: Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz azpititulatua**

*Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz* urtarrilaren 23ra arte luzatzen da, kontsultatu programa osoa azkunazentroa.eus webgunean edota zikloko eskuliburuan.



**IRA. 30 > URR. 6** (ast. > iga.)

# Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan

Irailak 30, astelehena > Urriak 6, igandea

Golem Alhóndiga Zinemak

4,5€ / 3,5€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

Aurten ere Zinemaldiaren 67. edizioan lehen aldiz emandako zazpi pelikula Bilbon ikusgai, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren eskutik. Programa hau zinema eta ikus-entzunezkoen arloan sartzen da, eta aintzat hartzen ditu hala dimentsio historikoa -Zinematekaren bidez-, nola ikus-entzunezkoen ekoizpen garaikidea eta nazioartekoa.

Zikloa abian jartzeko, *La trinchera infinita* film euskal-frantsesa izango dugu ikusgai, Jose Mari Goenaga, Jon Garaño eta Aitor Arregi zuzendariek gaztelaniaz egindako lehen film luzea. Zinemaldiko sekzio ofizialean estreinaldia izan duen koprodukzio honetan, bikote baten bizitza jorratzen da Gerra Zibilaren garaian: errepresaliak jasotzeko beldurra, amodioa eta zigortuen itxialdia.

Jarraian, sekzio ofizialeko beste film bat proiektatuko da, José Luis Torres Leiva zuzendari txiletarraren *Vendrá la muerte y tendrá tus ojo*s, amodioa, adiskidetasuna eta heriotza hizpide dituen filma: bizitza osoa elkarrekin eman duten bi emakumek aurre egin beharko diote batak duen gaixotasunari. Proiekzioekin jarraituta, Tunisiako Hinde Boujemaa zuzendariaren *Le rêve de noura* izango dugu, New directors sekzioan aurkeztutako filma; eta Bong Joon-ho zuzendariaren *Gisaengchung / Parasite*, Perlas sekziokoa. Koreako zuzendariaren lana aurrehautagaia da 2020. urteko Oscar sarietarako, nazioarteko filmik onenaren atalean. Kritika bikainak jaso dituen thriller korear hau moralari buruzko hausnarketa sozial bat da.

Era berean, Perlas sekziokoa da Ken Loach zuzendari txalotuaren *Sorry we missed you* film britainiarra. 2019ko Europako Zinema Sarien izendapenerako hautatutako film honetan, Loachek berriz azaltzen du sisteman ahulen dauden pertsonen eguneroko borroka, hain zuzen, ‘autonomo faltsuak’ deitutakoen lan-baldintza gogorrak. Bestetik, New Directors sekzioan, Joanne Giger-en *Le milieu de l’horizon* filma egon da ikusgai. 1976an Suitzako landa-guneetan izan zen lehorte latzean girotutako film honetan, neska gazte baten erretratua lantzen da, haren xalotasuna eta familia-ingurua gainbehera doazela. Azkenik, programari amaiera emateko, François Girardek zuzendu duen eta Clive Owen eta Tim Roth protagonista gisa dituen *The song of names* filma izango dugu ikusgai.

# DONOSTIA ZINEMALDIA PROGRAMA

## La trinchera infinita

**Irailak 30, astelehena / 20:00**



Higiniok eta Rosak hilabete gutxi daramatzate ezkonduta, Gerra Zibila piztu eta, ondorioz, gizonaren bizitza arrisku larrian jartzen denean. Emaztearen laguntzaz, Higiniok etxean zulo bat egin eta denbora batez bertan ezkutatzea erabakiko du. Errepresaliak jasotzeko beldurrak eta elkarrenganako maitasunak 30 urtetik gora iraungo duen itxialdi batera kondenatuko dute bikotea.

147' / Espainia-Frantzia
**Sail Ofiziala**
**Z:** Jose Mari Goenaga, Jon Garaño, Aitor Arregi
**G:** Luiso Berdejo, Jose Mari Goenaga
**Ar:** Javi Agirre Erauso
**A:** Antonio de la Torre, Belén Cuesta

## Vendrá la muerte y tendrá tus ojos

**Urriak 1, asteartea / 20:00**



Bizitza osoa elkarrekin eman duten bi emakumek haietako baten gaixotasunari aurre egin beharko diote. Gaixo dagoen emakumeak tratamendurik ez egitea erabakiko du, eta basoko etxola batera joango dira biak, heriotza haien bizitzetara iritsi arte. Hala, berriz aurkituko dute errutinaren eta denboraren poderioz ahuldutako maitasungarra. Apurka-apurka, bien arteko harremana indartuko da; bitartean, etxola kanpoan, heriotza bere abagunearen zain dago.

95' / Chile-Argentina-Alemania
**Sail Ofiziala**
**Z/G:** José Luis Torres Leiva
**Ar:** Cristian Soto
**A:** Amparo Noguera, Julieta Figueroa

## Le rêve de noura

**Urriak 2, asteazkena / 20:00**



Senarra kartzelan duela, Lassad ezagutu du Nourak. Berehala maiteminduko dira eta elkarrekin bizi nahiko dute. Baina Jamel presondegitik aterako da, eta, legeak behartuta, Nourak berarekin bizi beharko du berriz ere. Zuzendariaren bigarren film luzea.

92' / Tunez-Frantzia-Belgika-Qatar
**New Directors Saila**
**Z/G:** Hinde Boujemaa
**Ar:** Martin Rit
**A:** Hend Sabri, Lofti Abdelli, Hakim Boumassoudi, Belhassen Harbaoui, lkbal Harbaoui, Jamel Sassi

## Gisaengchung / Parasite

**Urriak 3, osteguna / 20:00**



Ki-taeken familiako guztiak langabezian daude, eta Park familia aberatsaren bizimoduak izugarrizko interesa pizten die. Egun batean, Parken etxean ingelesezko eskolak emateko gomendatuko dute semea. Bidaia kontrolaezin baten hasiera izango da, eta inor ez da onik aterako. *Memories of Murder* (zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eta New Directors saria, 2003) zuzendariaren azken filmak Urrezko Palmorria eskuratu du Canneseko azken zinemajaialdian.

131' / Corea del Sur
**Perlak Saila**
**Z:** Bong Joon-ho
**G:** Bon Joon-ho, Han Jin-won
**Ar:** Hong Jyung-pyo
**A:** Song Kang Ho, Lee Sun-kyun, Cho Yeo-jeong, Woo-shik, Park So-dam

## Sorry we missed you

Urriak 4, ostirala / 20:00



Ricky, Abby eta haien bi haurrak Newcastlen bizi dira. Ricky lan batetik bestera dabil; Abbyk adinekoak zaintzen ditu. Rickyk aukera bat ikusiko du orduan, aplikazioen iraultzari esker. Bikoteak den-dena jarriko du apustu horret. Abbyk bere autoa salduko du Rickyk furgoneta erosi eta bere kontura lan egin dezan: azkenean bera izango da bere nagusi. Mundu modernoa familiako sukaldean sartuko da, eta bestelako etorkizun bat eskainiko die Cannes Jaialdiko Sail Ofiziala.

102' / Erresuma Batua-Frantzia-Alemania
**Perlak Saila**
**Z:** Ken Loach
**G:** Paul Laverty
**Ar:** Robbie Ryan
**A:** Kris Hitchen, Debbie Honeywood, Alfie Dobson, Kris Hitchen, Debbie Honeywood, Rhys Stone, Katie Proctor

## Le milieu de l'horizon

Urriak 5, larunbata / 20:00



1976ko uda. Bero-bolada bat azkar-azkar lehortzen ari da Suitzako landa-ingurua. Giro itogarri horretan, nekazari baten 13 urteko semeak, Gusek, familia eta bere inozentzia ihes egiten ikusiko ditu: mundu baten amaiera bizitzen ari da. Zuzendariaren lehenbiziko film luzea, *Puppy Love* (2013), New Directors egon zen.

90' / Suitza-Belgika
**New Directors Saila**
**Z:** Delphine Lehericey
**G:** Joanne Giger
**Ar:** Christophe Beaucarne
**A:** Laetitia Casta, Luc Bruchez, Clémence Poésy, Thibaut Evrard, Fred Hotier

## The song of names

Urriak 6, igandea / 20:00



Europan, Bigarren Mundu Gerra betean, Martinek, bederatzi urteko haur batek, maitasuna hartuko dio bere anaia adoptatu berriari. Dovidl, haren adin bereko biolin-jotzaile miraria, Londresera iritsi berri da errefuxiatu gisa. Denbora luze baten ondoren, 21 urterekin lehen kontzertua eman aurretik, arrastorik utzi gabe desagertuko da Dovidl, eta lotsa eta hondamena ekarriko dio familiari. Handik urtetara, Martinek 56 urte dituenean, Dovidlek soilik irakats lekiokeen filigrana estilistiko bat erakutsiko dio biolin-jotzaile gazte batek.

111' / Kanada-Erresuma Batua-Alemania
**Sail Ofiziala. Klausurako filma, lehiaketatik kanpo**
**Z:** François Girard
**G:** Jeffrey Caine
**Fr:** David Franco
**A:** Tim Roth, Clive Owen, Catherine McCormack, Jonah Hauer King, Magdalena Cieleck

### INFORMAZIOA

**Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.**

**+ INFO: azkunazentroa.eus**

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesede eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko.

Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu.

Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen.

Kontsultatu ziklo osoaren programa hemen: sansebastianfestival.com

### LABURDURAK

A: Aktoreak | Ar: Argazkia
G: Gidoia | Z: Zuzendaria

67 | SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

# Zinexit: hamar urte zinemaz eta elkarbizitzaz

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Zinexit. Elkarbizitzarako Zinema-erakustaldiaren 10. urteurrena ospatuko du, urrian eta azaroan programazio berezia antolatuz.

Urriaren 8tik 11ra arte, zinema eta giza eskubideei buruzko mundu osoko jaialdirik onenetan izan diren hiru film luzeren estreinaldia izango da, eta *Vitoria, 3 de marzo* filmaren emanaldi berezi bat ere bai, protagonistekin eta sortzaileekin batera.

Azaroaren 25etik 29ra arte, Jaialdiaren hamargarren edizioa izango da, bost film luze gehiagorekin eta eguneroko eztabaidekin. Pertsona guztiek zoriontasuna bilatzeko duten eskubidearen ideia ardatz gisa hartuta, primizia batzuk eskainiko zaizkie ikusleei, hala nola *Generación perdida*, Ane Irazabal euskal kazetariaren hurrengo dokumentala.

Urriak 8 > 11
Asteartea > Ostirala

Azaroak 25 > 29
Astelehena > Ostirala

Golem Alhóndiga Zinemak

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso zinemetako leihatilan), eserleku guztiak bete arte

Kontsultatu programa osoa hemen: zinexit.net

Zinexit



*Vitoria 3 de marzo*

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK **URR. 17 > 24** (ostg.)

# Film Sozialak

## Zinema Ikusezinaren 11. Jaialdia

Kultura, Communication y Desarrollo ‘KCD’

Hamar urte baino gehiago dira Film Sozialak Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdia antolatzen dela. Jaialdi horrek dibertsitatea eta gizarte konpromisoa aldarrikatzen ditu, beren obren bidez gizateriaren bozeramaile bihurtu diren hainbat komunikatzaileren eskutik.

Juan Carlos Vázquez Velasco zuzendariak nabarmendu duenez, Film Sozialak «zinema mota konprometitu bat da, pantaila konbentzionaletan maiz alde batera utzi ohi diren gaiak erakusten dituena: garapen iraunkorra, genero berdintasuna, giza eskubidea, kulturartekotasuna, orotariko dibertsitateak, migrazioak, etab. erakustek».

Fikzio, dokumental eta animazioak proiektatzeaz gainera, publikoaren eta ikus-entzunezkoen arloko mundu osoko sortzaileen arteko gogoeta eta eztabadaiarako espazioak eskaintzen ditu Jaialdiak.

Hasieratik bertatik, berdintasunezko ekintza positiboak aplikatzen ditu Jaialdiak, obrak aukeratzeko, zabaltzeko, emakume zinemagileen presentzia bermatzeko eta epaimahaikideak aukeratzeko, besteak beste. Aurten, berritasun gisa, ‘Klikatu Zinema Ikusezina’ plataforma abian jarriko du, Jaialdiko filmak online zabaltzeko.

Urriak 17 > 24
Osteguna > Osteguna

**Inaugurazioa**
Urriak 17
19:30 / Auditorioa

**Amaiera**
Urriak 24
19:30 / Auditorioa

**Jaialdia**
Urriak 18 > 23
17:00 / 19:30 / 22:15
Golem Alhóndiga Zinemak
Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

Kontsutatu programa osoa hemen:
azkunazentroa.eus
kcd-ongd.org/invisible

CINE INVISIBLE 11 FESTIVAL INTERNACIONAL FILM SOZIALAK 2019 BILBAO www.kcd-ongd.org

KCD Kultura Communication Desarrollo ONGD



*Sleepless / Repeat until death*

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK **URR. 21** (ast.)

# Zinemakumeak Gara!

## Emakumeek zuzendutako Zinema Erakustaldiaren 24. edizioa

Zinemaren historian emakumeen presentzia ikusezina eta zazpigarren artearen esparru guztietan emakumeek egin duten ekarpena ezagutzeko beharra aintzat hartuta, aurten 24 edizioa izango duen Zinemakumeak Gara! sortu zen. Jaialdi honek laguntza ematen du nagusi den diskurtso maskulinoarekin hausten duten irudikapen zinematografikoko forma berriak eraikitzeko, begirada femeninoa sartuta.

Aurtengo programazioan, jardunaldi bat izango da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, Lila Avilések zuzendutako *La camarista* (Mexiko 2018, 102') filma proiektatuko baita. Mexikoko zinemagileak Everen bizitza erakusten digu: gazte kamarista bat, Mexiko Hiriko luxuzko hoteletako batean lan egiten duena. Evek ezin du semea zaindu lanean aritzen den bitartean, baina uste du egoera hobetu ahal izango duela postu hobe bat eskuratuta.

Proiekzioaren ondoko solasaldiak *Emakumeen ahalduntzea borroka sindikaletan eta sozialetan* izango du hizpide, eta honako hauek parte hartuko dute: Isabel Otxoa, UPV/EHUko Lan Zuzenbideko irakaslea eta ATh-ELE Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteko ekintzailea; Itziar Gandarias, Deustuko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakaslea, eta Babel Munduko Emakumeak elkarteko eta Emakumeen Munduko Martxako Euskal Herriko plataformako kidea; eta Susana Carramiñana, Soziologia eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna.

**Urriak 21, astelehena**

19:30
*La Camarista* Filmaren proiekzioa

21:15
Hizketaldia: *Emakumeen ahalduntzea borroka sindikaletan eta sozialetan*

**Bastida Aretoa**

**Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso Az Infon), eserleku guztiak bete arte**

ZG! ZINEMAKUMEAK GARA! MUESTRA DE CINE DIRIGIDO POR MUJERES



*La camarista*. Arg.grafía: cinemaldito.com

# Zinebi

## Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren 61. edizioa

Aurten ere, Zinebi, Bilboko Udalak antolatzen duen Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia, Azkuna Zentroan izango da; edizio berriak (61 edizioak) bost kontinenteetako zuzendarien sorkuntza eta talentua erakutsiko ditu, ia 4.000 lan aurkeztu baitira lehiara, iaz baino 151 gehiago.

Zinebi, Estatuko A klaseko nazioarteko jaialdi bakarra, film labur eta zinema dokumentalaren espezialitatekoa da; Hollywoodeko Akademiaren akreditazioa du palmares ofizialeko film laburren artean Oscar sarien kalifikatzailea izateko, eta Britainia Handiko BAFTA eta Espainiako Zinema Akademiako Goya sarietarako jaialdi kalifikatzailea ere bada.

61. edizio hauetan, jaialdiak eutsi egin dio bere identitatearen bereizgarri nagusietako bati, hain zuzen, zinema independentearekiko konpromisoari, eta, «orobat, arreta egin die zinema garaikideko prozesu artistiko konplexuak eratzen dituzten joera eta hizkuntza berriei, eta errealizatzaileen eskakizun etiko eta estetikoen maila altuari», antolakuntzakoek gogorarazi dutenez.

Azaroak 8 > 15
Larunbata > Larunbata

Golem Alhóndiga Zinemak

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

Kontsultatu programa osoa hemen: zinebi.eus

zinebi.eus

@zinebifestival

@ZinebiFEST

@zinebifilmfest

Zinebi Bilbao

ZINE BI



# Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia



EDE - Suspergintza Fundazioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok sustatutako Haritu, kultura digital eta teknologiako laborategia, teknologiaren inguruan hausnartzeko espazio berria da; edozeinek izango du aukera hurbiltzeko eta teknologiak probatzeko, esaterako, fabrikazio digitala, programazioa edo elektronika; baita teknologia garaikideak zer-nolako eragina duen gugan hausnartzeko.

Laborategiko programazioak atal hauek ditu, besteak beste: Teknologia eta fabrikazio digitalaren hastapenak, soinu elektronikorako eta pentsamendu konputazionalerako sarrera, laser bidezko ebaketaren hastapenak, 3D inprimagailua,  hardware libreko tresna hezigarria, Cyborg gorputza, eta baita teknologia espezifikoko tailerrak, prestakuntzako zikloak teknologia-arloko arrakalak eta joerak leuntzeko, hitzaldiak eta aurkezpenak.

Guzti hura sektoreko profesionalen eskutik: Oihane Zarate, Deustoko Unibertsitateko Telekomunikazioetako Ingeniaria; Iratxe Menchaca, Pedagogiako Lizentziaduna; Lorea Argarate, Las Tea Party-ko Dj-a eta Telekomunikazioetako Ingeniaria; Alberto Martínez, fabrikazio digitalaren eremuan murgildutako diseinugilea; Jabi Luengo, TIK aditua; garapen webea,  datu-bistaratzea eta arte digitala lantzen duten Alfonso S. Uzábalek eta Pablo Rey Mazónek osatutako Montera 34 taldea; Margarita Padilla, Dabne kooperatibako ordenagailu programatzailea; edo Diana Franco Eguren, Laborategiko koordinatzailea, beste batzuen artean.

Parte-hartzeko ez da beharrezkoa aurreko ezaguerak izatea, baina bai ikasteko eta probatzeko gogoak.

Irailak 16, astelehena > Abenduak 13, ostirala

Lantegia 2

**Espazio irekiaren ordutegia:**
Asteazkenak, ostegunak eta ostiralak:
12:00 - 20:00

Sustatzen dute:
Fundación EDE-Suspergintza eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

Laguntzaileak:
Fundación Mutua Madrileña, Bizkaiko Foru Aldundia

Laborategiko programazioa:
107. or.

# Knowledge Exchange Forum mahai-ingurua

Programa publikoa

Culture Lab, laborategi digitala



Cultur Lab en Azkuna Zentroa

Azaroak 5, asteartea

18:00
Open Space
Erakusketa Aretoa

Proiektu artistikoen komunikazio digitala nola hobetu ikertzen duen Culture Lab programa azaroaren 5ean amaituko da mahai-inguru honekin: Knowledge Exchange Forum.

Joan den maiatzean Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Digital Indetities-ekin batera antolatu zuen Culture Lab laborategi digitalean, kultura garaikidearen esparruko zenbait profesionalek praktika artistikoa hedatzeko IKT berriak landu zituzten (informaziorako eta komunikaziorako teknikak). Abhay Adhikari, Sarah Gillett, Sharna Jackson, Tom Higham eta Cori Moore nazioarteko adituek zuzendutako laborategian, zortzi proiektu hautatu zituzten, hiru hileko egonaldi bisualerako.

Orain, Abhay Adhikarik gidatutako Knowledge Exchange Forum mahai-inguruan, hausnarketa egingo da ikus-entzuleekin konektatu ahal izateko artistek eta kulturako kudeatzaileek tresna digitalei heltzeko duten moduari buruz.

Egonaldi birtualean parte hartutako artista batzuek beren esperientziak partekatuko dituzte, eta esperimentu digitalak egingo dituzte, komunitate birtual desberdinekin prozesuak eta ikuspegiak partekatzeak dituen abantailak eta erronkak jorratzeko.

Mahai-inguruan parte hartzen duten artista eta kolektiboak:
**Horman Foster**
**Zirkozaurre**
**Not a soho**

**AZA. 1, 2 ETA 3** (ost., lar., iga.)

# Bilbao Maker Faire

Programa publikoa

OPEN CODES

## Teknologia sortzaileen nazioarteko jaialdia



Bilbao Maker Faire, mundu osoan egiten den Sorkuntzako Teknologien Nazioarteko Jaialdirik handiena, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaora iritsiko da, *Open Codes. We are data* erakusketarekin batera

Espacio Open-ek sustatutako jaialdi hau Europako maker kulturako ekitaldirik zahar eta garrantzitsuenetako bat da, eta era guztietako ikusleei zuzenduta dago. Zientzia eta teknologiari lotutako hitzaldiak, tailerrak eta showcase-ak eginez, esperientziaren bidezko ikaskuntza indartzen du, eta DIY kontzeptuaren bitartez (Do It Yourself edo Egin zuk zeuk) herritarrak ahalduntzen ditu.

Bilbao Maker Faire sorkuntza eta kultura digitaleko Fab Lab Bilbao zentroko urteko programazioaren parte da, eta talde-lana eta jakintza komunitatean eskuratzea eta sortzea sustatzen du, beste balio batzuen artean.

Esnatu barruan daramazun maker-a, eta hurbildu zaitez 3 D inprimaketa, robotika, elektronika, programazio eta beste teknologia batzuen erabilera sortzailera. Instalazio interaktiboak, proiektuak, tailerrak eta jarduerak aurkituko dituzu, adin guztietako ikusleentzat, hala familientzat, nola arte, diseinu eta teknologiako profesionalentzat.

Azaroak 1, 2 eta 3
Ostirala, larunbata eta igandea

Sarrea dohianik

Informazio gehiago:
azkunazentroa.eus

bilbao.makerfaire.com

Maker Faire Bilbao

espacio open

www.espacioopen.com

# Matarile Teatro

## *Daimon y la jodida lógica*



Matarile Teatro konpainiak emango dio hasiera Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko udazkeneko denboraldiari eszenikoari, *Daimon y la jodida lógica* lanarekin, Ana Vallés eta Baltasar Patiñoren zuzendaritza artistikoarekin. Matarileren azken sorkuntza-lan hau deialdi publikoen bidez –Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon egin zen horietako bat– hautatutako artistek interpretatuko dute.

Ana Vallésen arabera, *Damon y la jodida lógica* patua da, kontzientziaren ahotsa, intuizioa, aingeru edo deabru, gelditzen edo bultzatzen duen barne-ahotsaren xuxurla. Presentzia ezkutua, ezustekoa, arrazoizko eran ezin azal ditzakegun ekintzak eta erabakiak zehazten dituena. «Eman ahal diogu gorputz bat, presentzia ilun edo lankide bat; irudika dezakegu lagun egiten digun figura bat, ni ez dena, eta gure nia ukitu gabe geratuko litzateke, osorik. Baina niri gehiago interesatzen zati ni ere baden daimon-a, gure ni ulertezina; irrazionalarekin, misterioarekin, fantastikoarekin lotzen den gure aldea; ohiz kanpokora, salbatzen gaituenera, sublime denera edo eromenera zabaldutako atea. Esan dezagun emakume hau ez dela zoriontsua, ez zela izan. Esan dezagun armairu baten barruan zer aurkitu zuten, jantzitegian. Hitz egin dezagun filosofia-saiakeren ondoan bizi diren ileordez. Hitz egin dezagun gosariez, zigarroez, eskuez, aterpez, beharbada katuaz, ahots hartaz; axola duten gauze» azaldu du Vallések.

Urriak 10, osteguna

19:30
**Auditorioa**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

FITXA ARTISTIKOA

**Produkzioa**:
Matarile

**Koprodukzioa**:
Zaragozako Arte Eszenikoen eta Irudiaren Udal Patronatua

**Lankideak**:
Azkuna Zentroa eta 37 Festival de Otoño.

**Bestelako lankideak**:
Concello de Santiago, Compostela Cultura, Ourenseko Udal Auditorioa

matarileteatro.net



Arg.: Xoan A. Soler

**MATARILE.** Ana Vallés eta Baltasar Patiño zuzendari artistikoek 1986an sortu zuten konpainia Compostelan. Sorkuntza garaikidea erakusteko espazioen sustatzaile ere jarduten dira hori horretan. Guztira, 30 ikuskizun baino gehiago eszenaratu, eta hogei sari eta aipamenetik gora eskuratu dituzte, Espainiako eta Europako hainbat tokitan.

Matarileren eta Ana Vallésen ikuskizunak herrialde askotako hirietan aurkeztu dira, besteak beste, hauetan: Estatu Batuak, Serbia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Eskozia, Errumania, Brasil eta Polonia. 2017an ezohiko proiektu batekin azaldu ziren bat-batean: saLa Montiel sortu zuten, erakusketako eta erresistentziako espazio ez-iraunkorra, aurrekontu eta araudi ofizialik gabea .

# Tartean Teatroa

## *Ghero*

9 parabola euskara planetaren inguruan orbitatzen



Argazkia: Guillermo Casas

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok *Ghero* aurkezten du, kondairen kondaira bat, euskararen biziraupen harrigarriari buruz. Gure hizkuntza protagonista bezala, antzezlan honetan hizkuntza txiki honen iraupenaren misterioarekiko harridura eta miresmena erakusten da.

Milaka landare eta animalia espezierekin gertatu bezala, hizkuntza txikiak desagertzen ari dira pixkanaka eta erremediorik gabe. Soilik indartsuenak gailentzen dira, eta joera geldiezin honen arabera, litekeena da etorkizun batean denok hizkuntza bakarra egitea. Etorkizun horretan kokatu dugu gure istorio hau, Ghero.

3000 urtea. Euskara desagertzeko zorian dago. Azken euskaldunak izkin egin nahi dio halabeharrari. Benetako misterioa ez da gure hizkuntzaren jatorria, ezbada bere biziraupen harrigarria. 3000 urtean euskara egongo al da?

«Hizkuntz preindoeuropear txiki baten biziraupenaren mirariarekiko harridura, miresmena, nahasmena, konplizitatea… Bederatzi istorio, bederatzi antzerki poema, euskeraren planetaren inguruan orbitatzen. Antzezlan emozionantea, originala, dibertigarria, harrigarria eta estetikoki ausarta».Tartean Teatroa.




Arg.: eitb

**TARTEAN TEATROA** bide luze eta aitzatetsia egin duen antzerki konpainia da. **JOKIN OREGI**, **PATXO TELLERIA** eta **MIKEL MARTINEZ** dira taldearen sortzaileak eta arduradunak. Antzerki talde honen ezaugarri nagusia Berezko Sorkuntza da, hau da, bere ekoizpenak taldekideek sortutako ideia eta testuetan oinarritzen dira. Tartean-ek Euskal antzerkia eta kulturaren aldeko apostu garbia egiten du eta, ahalegin hau arlo desberdinetatik aitortu zaie.

Abenduak 3, astearte

19:30
**Auditorioa**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

FITXA ARTISTIKOA

**Dramaturgia**:
Patxo Telleria

**Zuzendaritza**:
Jokin Oregi

**Aktoreak**:
Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikaza

**Eskenografia**:
Ana Garay

**Musikagilea**:
Iñaki Salvador

**Argi diseinua**:
David Rodríguez

**Zuzendaritza laguntzailea**:
Adrian Garcia de los Ojos

**Diseinu grafikoa**:
Paradox Fotografia. Mikel Alonso

**Ekoizpen arduradunak**:
Pio Ortiz de Pinedo y Myriam Gartzia

**Koprodukzioa**:
Tartean Teatroa eta Euskaltzaindia

tartean.com

# Thorus Arts. Ferran Carvajal eta Trevor Carlson

## *Not a moment too soon*

Dantzaldia 2019. La FuNdicIOn-en programa bat



Ferran Carvajal zuzendariak eta Trevor Carlson interpretatzaileak *Not a moment too soon* pieza aurkeztuko dute Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaon, La FuNdicIOnek antolatutako Dantzaldian, Nazioarteko Dantza Jaialdian.

*Not a moment too soon* obra eszeniko multidisziplinarioak batera txertatzen ditu dantza, testua, musika eta bideoa, eta Merce Cunningham koreografoak eta haren zuzendari exekutibo Trevor Carlsonek izandako bizi-esperientzia arakatzen du, lehen pertsonan eta Carlsonen ikuspegitik, bakar-saio gisa. «Obra honek Trevor Carlsonen ikuspegi subjektiboa du abiaburu. Identitatea, memoria, emozioak eta giza paisaiak jorratzen dituen obra bat izan nahi du. Gure prozesuak bulkada teknikoen eta intuitiboen kohesioa lortu nahi du, eszenaratzean sorkuntzaren erritmoak errespetatzeko», azaldu du Ferrán Carvajal zuzendariak.

Pieza hau partekatutako bidaia bati buruzko antzerki-dantzako obra bat da: Cunningham-en bizitzako azken aldiak, lanean jarraitzeko borroka eta Trevor Carlson-ek prozesu horretan leunki egin zion laguntza. Introspekzio-ekintza bat, bi gizonek partekatutako memorian; maisu baten azken egunei egindako begirada intimo bat, bideo argitaratu gabeetan jasotako Cunningham-en ahotsaren eta irudiaren bidez, eta Carlsonen beraren narrazioen eta ekintzen bidez.



Carlson & Carvajal. Arg.: Ximena y Sergio

**FERRAN CARVAJAL** Artista multidisziplinarioa, zuzendari, koreografo, dantzari eta aktore aritzen dena. Interpretazioa ikasi zuen, dramaturgia eszenikoa, dantza eta mugimendua, teatro fisikoa eta dantza garaikidea. Carvajal aktore-lanetan ere aritu da zineman, telebistan eta antzerkian

**TREVOR CARLSON** ondo frogatu du lider ameslaria dela arteak kudeatzeko esparruan. Lan-ibilbideko hogei urteetan barrena, artista ugari bideratu ditu haien helmugetara, bereziki Merce Cunningham dantzaria eta koreografoa. Merce Cunningham Foundation-eko zuzendari exekutibo aritu zen Trevor.

**Azaroak 7, osteguna**

19:30
**Auditorioa**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

**FITXA ARTISTIKOA**

**Zuzendaritza**: Ferran Carvajal
**Interpretazioa**: Trevor Carlson
**Idazketa eta dramaturgia**
Albert Tola
**Bideo-sorkuntza**:
Miquel Àngel Raió
**Eremu eszenikoa**:
Max Glaenzel
**Musika-konposizioa**:
Jaume Manresa
**Argi-diseinua**:
Maria Domènech
**Jantzi-diseinua**:
Alejandro Andújar
**Eskultura-sorkuntza**:
Casey Curran
**Mugimendu ahokularia**:
Joan Palau
**Bideo-dokumentazioa eta sormen-prozesuaren fotografia**: Elisabeth Prandi
**Ekoizle kideak**:
Barbican, Mercat de les Flors, Thorus Arts
**Komisarioak**:
Katherine Hayes, Mary Rice, Sutton Stracke
**Argazkiak**:
Yoana Miquel
**Fitxa osoa**:
azkunazentroa.eus

**thorusarts.com**

Ferran Carvajal
**@ferrancarvajal**
**Ferran Carvajal - Oficial**

Trevor Carlson
**@TrevorCarlson**

20 edizioa DANTZALDIA La FuNdicIOn

**Dantzaldia**, La FuNdicIOn-ek antolatutako Nazioarteko Dantza Jaialdiak hiriko espazio desberdinetan garatzen du bere programazioa, harrera desberdinei eta formatuei bide emanez.

# La Tristura

*Future lovers*



La Tristura konpainia eszenikoak bere azken lana aurkezten du, *Future Lovers*. Gaztaroaren, ametsen eta bete zirenen eta ez zirenen itxaropenen inguruko gogoeta, millennial talde baten pentsamendu eta ikuspegitik.

*Future Lovers*-en, 2000. urte inguruan jaiotako sei gazte hizketan ari dira haien artean eta mundurantz. Udako gau bat da, hiri handi bateko aldirietan, eta lagun batzuek -beharbada, institututik unibertsitatera igarotzeko daudela- hitzordua jarri dute edateko, dantzatzeko, hitz egiteko eta musukatzeko.

Nola dauden eta nola jokatzen duten ikusita, hau da, haiei begira inor ez balego bezala, La Tristurak zera nahi du: «burbuila bat, habia bat sortu, kanpotik ikusita zuzenean dei egiten diguna, gure bizitzako une horretara itzultzera behartzen gaituena».

La Tristurak hamar urtetik gora daramatza lanean arte eszenikoen inguruan. Agertokiaren barruan eta kanpoan 'egoera gizatiarrak' sortu nahian. «Gure ustez, ikertzeko toki bat da eszena, bizitzak dituen aukerak anplifikatzekoa», diote. *Future Lovers* lanak interes horri erantzuten dio. «Nerabeekin, etorkizuneko buruzagi eta maitaleekin era aske eta sakonean harremanetan jartzeko egoera bat aurkitzea ez da erreza, eta eszenan egin nahi dugu, ahalegina egin nahi dugu esperientzia komun bat sortzeko, gure iraganaz eta etorkizunaz zerbait ezagutaraziko digulakoan».



Arana, Giménez eta Gil

**LA TRISTURA. ITSASO ARANAK**, **VIOLETA GIL-EK** eta **CELSO GIMÉNEZ-EK** hamar urtetik gora daramatzate aurkezpenaren eta antzezpenaren arteko mugak ikertzen, antzerki garaikidearekiko interesa erakusten eta konpromiso izaten, intimitatea eta poesia, funtsean, kontzeptu politikoak direlakoan. Urte horietan, bestelako testuinguruak ere sortu dituzte, hala nola Festival Salvaje, Gran Convocatoria Mundial eta La Tristura 2004-2014 zikloa. Agenteak eta artistak harremanetan jarri nahian, eta lotura horietatik ezusteko mugimendu inspiratzaileak aterako direlakoan. Haien lana Madril hirira lotuta dago, hiri horretan bizi baitira eta hor jorratzen baitituzte proiektuak.

**Azaroak 21, osteguna**

19:30
**Auditorioa**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak**: **Az Info eta azkunazentroa.eus**

## FITXA ARTISTIKOA

**Sorkuntza**:
Celso Giménez, Itsaso Arana eta Violeta Gilen aholkularitza eszeniko eta dramaturgikoaz

**Eszenan**:
Pablo Díaz, Manuel Egozkue, Gonzalo Herrero, Itziar Manero, Siro Ouro eta Sara Toledo

**Aholkularitza artistikoa**:
Marcos Morau

**Ekoizpen exekutiboa**:
Alicia Calôt

**Argiteriaren diseinua**:
Carlos Marquerie

**Eszenografia**:
Ana Muñiz

**Soinu-espazioa**:
Eduardo Castro

**Jantziteria**:
Pedro Lobo

**Zuzendaritza teknikoa**:
Roberto Baldinelli

**Tresneria**:
Beatriz Muñiz eta Corpórea escultura

**Fotografia**:
Mario Zamora

**Diseinu grafikoa**:
Porelamordedios™

**Ekoizpena**:
Teatros del Canal, Madrilgo Komunitate eta La Tristura. INAEMen Egungo Dramaturgien Garapen Programaren laguntzaz idatzia

latristura.com

# Aimar Pérez Galí

## *The Touching Community*



Arg.: Jordi Surribas

Hiesaren aurkako borrokaren nazioarteko eguna omentzeko, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao-k *The Touching Community* aurkezten du, Aimar Pérez Galí koreografoaren pieza, dantzaren eta hies/GIBaren arteko harremanari buruzkoa.

2015eko urtearen amaieran, Aimar Pérez Galí ikerketa bat egiten hasi zen, hiesaren epidemiak Espainiako eta Latinoamerikako dantza-arloko komunitatean izan zuen inpaktuari buruz. Contact Improvisation praktikaz jabetu, eta joan ziren horien mamuekin egindako elkarrizketa gisa eraiki du lan hau. Steve Paxtonek abian jarri zuen dantza-praktika honetan, bi gorputz harremanetan jarriz inprobisatzen da mugimendua, eta horrek kontraste nabarmena sortzen du hies/GIBaren ondorioz izan ziren immunitate-politikekin.

*The Touching Community* lan intimoa eta afektiboa da, eta gaur egun ere agerian jarri eta behar den sentsibilitatez landu beharreko garai bati ekiten dio.

Lan bat memoriaz, goizegi dantzatzeari utzi zioten dantzariez, ahultasun handiko une batean sendo eratu zen komunitate batez, eta, batez ere, ukimenaz eta kontaktuaz, bizirik irauteko tresna gisa hartuta. Eta, gehienbat, amodioaz, aldaketaz eta beldurraz mintzo den lan bat. *Sudando el discurso* izeneko aurreko lanean, izerdia erabili zuen tresna gisa, dantza legezko diskurtso gisa berresteko; lan berri honetan, berriz, abiaburua da, ingurune konplexu eta dramatiko hura ulertzeko.



**AIMAR PÉREZ GALÍ** dantzaren eta zuzeneko arteen esparruan garatzen du praktika artistikoa, dantzari, koreografo, ikerlari, pedagogo eta idazle moduan. Dantza garaikidea ikasi zuen Amsterdamgo Arteen Goi Eskolan (Holanda), eta Teoria kritikoko eta ikasketa museologikoetako masterra egin du Bartzelonako Arte Garaikideko Museoko (MACBA) eta Bartzelonako Universitat Autonomako (UAB) Ikasketa Independenteen programan. 'Espacio Práctico'-ko sortzaile-kide eta zuzendari da. Bartzelonako Institut del Teatreko Dantzaren Goi Kontserbatorioko irakaslea da, eta '¡Encarna!' irakurle-taldea koordinatzen du era kolektiboan MACBAn 2017an hasi zirenetik. 2016az geroztik Bartzelonako Kultura Kontseiluko kidea da.

**Azaroak 30, larunbata**

19:30
**Lantegia 1**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**
**Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus**

## FITXA ARTISTIKOA

**Ideia, zuzendaria eta testuak:**
Aimar Pérez Galí

**Dantza:**
Óscar Dasí, Jesús Bravo, Jaime Conde-Salazar, Aimar Pérez Galí

**Dramaturgia:**
Jaime Conde-Salazar eta Aimar Pérez Galí

**Ikerkuntzan laguntzailea:**
Aimar Arriola

**Argi eta espazioaren diseinua:**
Cube.bz

**Soinu banda:**
Tirso Orive

**azioa eta argazkiak:**
Jordi Surribas

**Produkzioa:**
ANTES / Aimar Pérez Galí

**Laguntzaileak:**
Ikerkuntza bekak Generalitat de Catalunya; Graner - Centre de Creació del Cos i el Moviment (Bartzelona); Programa de Ayudas IBERESCENA; CaixaForum Barcelona; Tabakalera (Donostia); L'animal a l'esquena (Celrà, Girona); PAR – Programa Artistas en Residencia (Montevideo); Centro Cultural de España en Montevideo; CEPRODAC (México Hiria); Museo del Chopo (México Hiria); Espacio Práctico (Bartzelona).

aimarperezgali.com

# Osa+Mujika

## *Suddenly III*



«Eraikin baten gailurrean zaudenean edo altura handian dagoen balkoi batera irtetean, baliteke bertatik salto egiteko nahi antzeko bat sentitzea. Abiadura handian datorren tren bat iritsi aurretik ere halako zerbait sentitu dezakezu… Pertsona berezi horri eskua ematea pentsatzen duzun segundu hori, bere aurpegia ukitzeko tentazio hori. Burutik pasatzen zaizkizun instante horiek; hainbeste beldurtzen duten segundu horiek. Bertigoz beteriko momentu bat».

Osa+Mujika konpainia artistikoaren *Suddenly III*, segundu batez geldiarazten gaituzten bihozkadetatik abiatuta sortu da, gure burua arriskatzen dugunean eta bulkada horiengatik eramaten uzten garenean zer gertatzen den islatzeko.

Izan ere, burutazio horiek, arrisku baten aurrean gaudela ohartarazten gaituzten seinaleak besterik ez dira, garunak kontuz ibiltzeko gogorarazteko erabiltzen duen sistema bat. Baina zer gertatuko da bihozkada horiei kasu egitea erabakitzen badut? Zer salto egiten badut? Zer tiro egiten badut? Zer musukatzen badut? Batzuetan, erokeria hauei esker jarraitzen dugu bizirik, oreka neutro batean bizitzea baino askoz aberasgarriagoa baita jauzi egitea. Zeren, ez dugu beti nahiago txar ezaguna, ezagutzeagatik dagoen ona baino.

## Lengoaia koreografiko bizia duen eta mugimendu energetikoez eta irudiz beterik dagoen obra bisual bat da *Suddenly III* eta bere helburu nagusia irudi guzti hauek ikuslearen memorian geratzea da.



**OSA+MUJIKA, JAOITZ OSA** Alhondigako artista egoilarra Dantza Garaikideko Egoitza Artistikoaren Programan barne (2019), eta **XABIER MUJIKAREN** arteko topaketa artistikoa da. Bi mundu sortzaileren arteko elkartzea da: alde batetik dantza, eta bestetik jantzigintza eta eszenografia. Jaiotz dantzari eta koreografoa da, Xabierrek berriz, jantziak eta espazio eszenikoak diseinatzen ditu. Bien artean sortzen duten taldearen helburua bisualki indartsuak diren istorioak kontatzea da; burua dituzten irudiak sortzea, hauei forma eta zentzua ematea eta mugimenduaren bidez nahiz formatu audiobisualetan garatzea. Osa+Mujika dantzan eta ikusentzunezko artean dituzten interesak asetzeko sortu da.

### Abenduak 11, asteazkena

**Dantza garaikideko tailerra**
Jaiotz Osaren eskutik, non Osa+Mujika kolektiboaren hizkuntza eta filosofia bereizten den

11:00
Lantegia
DBH eta Batxillergoko ikasleei zuzenduta

### Abenduak 12, osteguna

***Suddenly III***

19:30h
Auditorio

12€ / 10€ con tarjeta Az
Entradas: Az Info y azkunazentroa.eus

### FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendaritza**: Jaiotz Osa + Xabier Mujika
**Dramaturgia/koreografia**: Jaiotz Osa
**Interpreteak**: Jaiotz Osa / Xabier Mujika
**Argiztapena**: Josu Murgia / Osa+Mujika
**Soinu konponketak**: Iñigo Telletxea
**Jantziak/Eszena**: Xabier Mujika
**Argazkiak**: Mariló Miguez
**Bideoa**: Rach_ Rodriguez
**Web**: Iñigo Cerdán
**Ekoizpena/Banaketa**: Osa+Mujika

osamujika.com
Osa + Mujika
osa_mujika

**URR. 4 Y 5** (ostr. eta lar.)

# Synth popa, tropikalismoa eta musika elektronikoa

Barruan. Musika eta gastronomia berrien hiriko ibilaldia



Barruan programak bigarren edizioa aurkeztuko du. Musika eta gastronomia berrien hiriko ibilaldia berriz izango da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, abangoardiako programazioko bi gauez.

Asteburuan, Lantegia 1 izango da jaialdi honen gune musikala. Sei artistak musikako proposamena eskainiko dute, synth popa, tropikalismoa eta musika elektronikoa uztartuta

Ibilaldiak hiriko beste espazio batzuetan ere egongo da ikusgai, urriaren 3tik 6ra arte, musika, showcookingak eta txoko batean janari-kontzertu bat antolatu baita. Kontsultatu programazio osoa barruan.net helbidean

**Urriak 4 eta 5**
**Ostirala eta larunbata**

20:30
Lantegia 1

Eguneko sarrera: 15€
MSK abonamendua: 26€

Programa osoa eta sarreren salmenta: barruan.net

@barruanbilbao

Barruan Bilbao

## PROGRAMA

### Urriak 4, ostirala

Soledad Vélez



*Nuevas épocas* bere azken diskoarekin, Soledad Vélez-ek era drastikoki aldatu zituen bere estandarrak synth pop nostalgiko baina haserre eta seduktorearekin, bere benetako identitatea aurkitzeak dirudiena.

Polynation (Stijn Hosman eta Hessel Stuut)



Technoak, ambientak eta world music-ak hitzordua ematen dute banda bat bezala proiektua fokuratzen duen bikote honen musikan, non bateria, sintetizadoreak eta programazioak, era organiko batean hedatzen diren.

Bronquio



Aurreikuskerak hautsi eta axolagabetasunak saihesten dituen esperimentu liluragarri eta dibertigarria. Elefante bat elektronika ezarruak eta Indie-aren 'katxarreria' aspergarrian.

### Urriak 5, larunbata

Ruiseñora



Ruiseñora-k kopla egiten dute, baina ez; elektronika egiten dute, baina ere ez. Bat-egite-espazioa egon beharko lirateke, puntu itsu bat, argia aurkituko lukeena saetak eta psikodelia nahasterakoan, kopla eta elektronika, atsotitz-bilduma eta makinen-hizkuntzak.

Los Voluble



Los Voluble *Flamenco Is Not A Crime* ikuskizuna dakarte Barruan jaialdira. Bere elektronika-, flamenkoa-, irudiak-, eta kritika politikoa-, nahasterako azkoin itzuli berria.

Los Manises



'Puerrowave' Los Manises-en uhina da. Bateririk ez aurreiritzirik ez duten duo energetiko eta osasungarri bat, Elxetarrak, soil eta indargarria. Gitarra batez soilik, baxu batrekin eta erritmo-kaxa batekin balio dira himno tribalak, exotikoak eta jai aireekin sortzeko.

# Jean-Luc Guionnet eta Lotus Eddé Khouri

## *Reciprocal scores*

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Jean-Luc Guionnet eta Lotus Eddé Khouri artistek *Reciprocal Scores* aurkeztuko dute urriaren 16an; musika esperimentaleko Hotsetan programaren barruan urriaren 7tik 20ra bitartean Azkuna Zentroko egonaldian zehar egindako lanaren emaitza izango da.

*Reciprocal Scores* egitura teknikoen, gorputzen, argien eta soinuen arteko konbinazioa da. Dueto horretan, musika berezko osagaia da instalazioan, ahots sintetikoarekin, testuekin eta hainbat musika instrumenturekin batera, eta dantza iragankortasunak bereganatutako arretaren eta edozein keinutan estalitako tentsioaren menpean gelditzen da. Musika geruza tinko hedatuta dago piezaren baitako soinu-alderdi guztietan. Dantzaren barruan, lan teknikoak eta beste edozein ekintza mota daude, izaera funtzionalekoak izan daitezkeenak edo bestelakoak.

«Dantza, organo elektrikoa, ahots sintetikoa, musika instrumentuak, kolpeak, elektronika, kantua, hautsa… elkarrekiko partitura hauek hartzen duten lekuan proiektatzen dira gure bizitza guztiak. Baina bizimodu amestu edo ideal batetik aldenduta, etengabe jotzen ari den alarma batek babestutako bizimodu bat izango litzateke gehiago, hutsune batetik bestera, ebaki batetik bestera, aurrerantz doan lerroan zehar osatzen den bideari jarraitzen dion bizimodua: bizitza hutsunean... egunez eguneko kontuekin bateraezina; bat datorren bizitza egunero bat?»



Arg.: Peter Gannushkin

**JEAN-LUC GUIONNET**
Artearen Filosofia eta Ikusmen Arteak ikasi zuen Pariseko Sorbonan. Ondoren, musikan eta soinu-artean murgildu zen, bitartekotzat hartuta soinu instalazioak, konposizio elektroakustikoak eta 'tape music'-a, konposizio instrumentalak eta musika-inprobisazioak. Soinuari eta aditzeari buruzko hainbat programa ere egin izan ditu Frantziako irrati nazionalerako.

**LOTUS EDDÉ KHOURI**, Parisen bizi den dantzaria eta koreografoa da; dantza beti baliabide soilenera murrizten den bideoetan nahiz emanaldietan, lankide nagusi izaten ditu Jean-Luc Guionnet eta Stéphane Rives musikariak, eta Christophe Macé eskultorea.

Urriak 9, asteazkena

**Hitzaldia**

19:00
Lantegia 2
Sarrera dohanik gonbidapenarekin, jaso Az Infon

Urriak 16, asteazkena

**Kontzertua**

19:00
Lantegia 2
8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

FITXA ARTISTIKOA

**Musika:**
Jean-Luc Guionnet
**Dantza:**
Lotus Eddé-khouri
**Ekoizpena:**
Association CHORDA.
**Proiektu honek honako hauen laguntza jaso du:**
Boom'structur, Festival Musiques démesurées, Le Générateur, le Théâtre de Vanves, Muzzix

Jean-Luc Guionnet
jeanlucguionnet.eu

Lotus Eddé Khouri
lotuseddekhouri.com

San Miguel

# Le Parody



Le Parody Sole Parodyren musika-proiektua da. Espainiako kantari eta musikagile honek pop iluna, folklorea eta elektronikoa bateratzen ditu bere kantuetan. Silaba teknologikoak, egitura melodramatikoak.

Tresna gisa erabilitako ahotsa eta hitzak, kantu-collageen barruan. Poparen mugen barruko esperimentu bat. Kopia, birziklatzea, ikertzea. Musika zuzenekoetarako tresna gisa, dantza eta entzunaldiaren artean zubiak eratuz. Magia. Zehatzezina, sailkaezina, gauza asko gogora ekartzen duena baina ezaguna den ezeren antzik ez duena, esan denez. Etiketak hitzen mundurako, bakoitzak behar dituenak hauta ditzan; musika zentzumenerako, bakoitzak entzun dezala nahiago duen eran.

Le Parody proiektuak 2011. urtearen amaieran eman zuen bere burua ezagutzera, *Párala* (Vértigo) EPrekin, eta berehala erakarri zuen Estatuko eta Latinoamerikako hainbat herrialdetako prentsa espezializatuaren arreta. Hurrengo urtean, Le Parodyk lehen disko luzea argitaratu zuen, *Cásala* (sound track). Hainbat hedabideren arabera, etorkizun oparoenetako debut bat izan zen (artista errebelazioa Radio Nacional eta Jenesaispop aldizkariaren ustez, besteak beste) eta musika independenteko zenbait sari eskuratu zituen -Proyecto Demo 2013ko irabazlea / Mondo Sonoro aldizkariak 2012ko maketarik onena hautatua (ed. Madrid) / Herri-musikaren kategorian gazteen sorkuntzako atalean INJUVE sarietako accesita (2012), besteak beste-. 2015eko urrian, *Hondo* argitaratu zuen, debuta baino trinkoagoa den lana, ia osorik eraikia Indiako, Irango, Marokoko, Balkanetako eta Espainiako hegoaldeko musiken sanpleak erabiliz. Kritikak ustekabez hartu, eta katalogatzeko zaila zela esan zuen, baina urteko diskorik onenen zerrendetako batzuetan sartu zen (Mondo Sonoro, Notodo, GQ…).

Orain, *Hondo* lana atera eta lau urte igarotakoan, hirugarren albuma aurkeztuko du Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon, *Porvenir*. Zuzeneko kontzertuetan inprobisatutako saioetako zatiak ditu, eta sekuentziatzaile eta sintetizagailu analogikoen erabileraren eragina sumatzen zaio. Hala, *El Junco* singlean argi nabarmentzen da klubeko elektronikara egin duen bilakaera.

Urriak 25, ostirala

21:00
Kulturen Ataria
Igerilekuaren argi-zuloaren azpian

12€ /10€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

leparody.tumblr.com

@jerome.bel.79

#jérômebel

San Miguel

**AZA. 6** (astz.)

# C. Alex McLean eta Sarah Rasines

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa




Arg: Dan Hett. C. Alex McLean

Hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko Hotsetan musika esperimentaleko programan, software musikari eta ikertzailea den C. Alex McLean artista britainiarraren lana aurkeztuko dugu, Euskal Herriko musika esperimentalaren esparruko errebelazioetako bat den Sarah Rasines artistarekin batera.

C. Alex McLeanek Sheffielden du egoitza (Erresuma Batuan), eta patroien (gehienbat musika- eta ehun-patroien) zuzeneko kodifikazioa eta hizkuntza informatikoen erabilera interesatzen zaio mundua ulertzeko eta harekin eragin-trukea izateko. Ildo horretan, azaroaren 6an, artistak performance inprobisatu bat egingo du, coding-a zuzenean erabiliz, TidalCycles-en eta FeedForward editore interaktiboaren bidez. Pantaila proiektatuari esker, ikusleek aukera izango dute kode-sormenaren konplexutasunaz gozatzeko zuzeneko sorkuntzako musikarekin eta inflexio-puntuekin.

Bestetik, Sarah Rasines, Euskal Herriko soinu- eta ikus-arloko artistak bere lana erakutsiko du, bere ikuspegi interdiziplinariotik, denborazko prozesuei eta baliabide esperimentalei lotuta. Artista hau ere ikertzailea da, Ikersoinu (Soinu-ikerketa eta espazio artistikoa) ikerketa-taldeko kidea.



Arg.: Jon Harrison

**C. ALEX McLEAN.** Artista, software musikaria eta ikertzailea da. *Artist-Programmers and Programming Languages for the Arts* izeneko doktorego-tesia du egina, Goldsmiths-en, (Londresko Unibertsitatea, 2011). Orain, Europako Ikerkuntza Kontseiluko PENELOPE proiektuan sartuta dago.



**SARAH RASINES**. Soinu- eta ikus-arloko artista. Arte Ederretan lizentziaduna, sormen artistikoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean egiten duen ikerkuntza-lana bateratzen ditu. Ikersoinu (Soinu-ikerketa eta espazio artistikoa) ikerketa-taldeko kidea da.

Azaroak 6, asteazkena

**Hitzaldia / Entzunaldia**

19:00
Lantegia 2

Hizkuntza: ingelesa

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

C. Alex McLean

yaxu.org

@yaxu

@yaxulive

Alex McLean

Sarah Rasines

sarahrasines.com

@rasines_sarah

Sarah Rasines

San Miguel

# Geoff Farina



Argazkia: Bruno Acquaro

Geoff Farina, Karate, The Secret Stars eta Glorytellers betiereko proiektuen arima, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaora etorriko da bere ahotsa eskaintzera, bere gitarra zaharraz lagunduta.

Karate hirukoteko lider gisa izan zen ezaguna, Geoff Farinak 1992an sortu baitzuen talde hori Gavin McCarthy bateria-jotzailearekin eta Jeffrey Goddard baxu-jotzailearekin batera. Artistak ondo erakutsi du gaitasuna duela musikagile eta gitarrista modura jarduteko, eta lankidetzan aritu da musika independentearen arloko proiektu ugaritan. Lanean jarduten eta Karate taldearekin birak egiten zituen bitartean, 1993an, Geoff Farinak Secret Stars sortu zuen Jodi Buonannorekin batera. Duoaren musikak gehiago jotzen zuen folkera, hasieran sortzaileen lagunentzat amodiozko kantuak idaztea zuen asmo bakarra, eta sarritan Farinaren gitarra akustikoaren laguntza zuen.

1998an, Farinak bakarkako lehen lana atera zuen, *Usonian Dream Sequence*, Karateren rock elektrikoaren eta Secret Stars-en eragin erromantikoaren bide erdian. Bakarkako diskografia berehala ugaldu zen, hurrengo urteko *Steely Dan 7" l*anarekin eta 2001eko *Reverse Eclipse* diskoarekin; biak ala biak Southern Recordsek ekoitzi zituen. 2002an Blobscape atera zuen Kimchee Records-ekin; eta 2005ean bi lan hauek argitaratu zituen: *New Salt* Xeng Records-en eta *Already Told You* Southern Records-en. 2006an Almanaque lana atera zen Atavisticen. Azken lan horren ondoren, artistak beste bide batzuk urratu zituen, era askotako proiektuekin, esate baterako, Glorytellers, Ardecore, Bando eta Exit Verse-rekin, Chris Brokawekin grabatuz (ex-Come) eta bakarka.

Azaroak 22, ostirala

21:00
Kulturen Ataria
Igerilekuaren argi-zuloaren azpian

12€ /10€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

geofffarina.com

@jerome.bel.79

#jérômebel

San Miguel

**AZA. 29 > ABE. 1** (ost. > iga.)

# La Escucha Errante 2019

KLEM, Musika Elektronikoko Laborategia



Azkuna Zentroa -Alhóndiga Bilbao *La Escucha Errante 2019-ko* 4. edizioaren epizentru bihurtzen da, Musika Elektronikoko KLEM Laborategiak eta UPV/EHU-k antolatutako topaketa. Hemen, musika garaikideko artistek elektronikarekin, performancearekin eta pentsamenduarekin hitzordua ematen dute.

'Isolamendu' kontzeptuarekin edizio honetako hari eroale bezala, bateratze-lan honetako proiektu eta jakin-minak performancean, Live Electronicsen, bideoan eta inprobisazio elektronikoaren inguruan izango dira. Baita kontzertuak, sinposioak, konferentziak gozatzeko, ideiak trukatzeko eta ikerketarako eta elkarbanatze sortzailerako sareak ezartzeko.

Jaialdiak soinu-arte digitalaren eta inprobisazio elektroniko eta akustikoaren arteko interakzioa bultzatzen du, artisten arteko esperientzia trukerako bideak eta espazio desberdinak ezarriz, proposamen esperimental berriekin.

Azaroak 29, ostirala >
Abenduak 1, igandea

Sarrera dohainik

Informazio gehiago eta programa:
laboratorioklem.com

laboratorioklem.com

KLEM

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# VI Bilbao European Encounters

## *Demokrazia Europan, eta haren kritikak*

Globernance. Gobernantza Demokratikoaren Institutua




Bilbao European Encounters 2018

Globernance - Gobernantza Demokratikoaren Institutuak seigarrenez antolatuko du Bilbao European Encounters ekimena Azkuna zentroan. Europaren integrazioak aurrez aurre dituen erronkak ardatz dituela, aurtengo edizioan arreta berezia emango zaie Europako demokrazien gaineko mehatxuei eta mehatxu horien jatorriei: populismoa eta eskuin muturra indartzea eta emozioen politika, nagusiki fake news deritzenen (albiste faltsuak) bidez garatua.

Nazioarteko biltzarraren formatuko ekimen honen bidez, Globernance - Gobernantza Demokratikoaren Institutuak Europa osoko goren mailako akademikoak bilduko ditu Bilbon. Demokraziaren eta haren erakundeen gaur egungo erronkei buruz jardungo dute, hain zuzen ere, oinarri harturik Daniel Innerarity filosofoak bere ibilbidean garatutako lana eta lan hori laburbiltzen duen “La Democracia en Europa” obra.

## PROGRAMA

1. panela: Europa, nazio-estatutik haratago: dibertsitatearen kudeaketa, estatuaren estalkiaren atzetik

Debora Spini Kalypso Nicolaïdis, Francis Cheneval.

2. panela: Europar gobernantza eta gobernantza transnazionala

Miguel P. Maduro, Jo Show, Pierre Rosanvallon

3. panela: Europar demokraziaren mehatxuak: ordezkaritza krisia, berdintasunik ezak, populismoa

Philippe Van Parijs, Sofia Näsström, José Luis Martí.

4. panela: Integrazio berezitua: zenbaterainoko berezitzea onar lezake Europar Batasunak?

Erik Oddvar Eriksen, Ulrike Liebert, Nicola McEwen.

Baliteke egitarauan azken orduko aldaketaren bat izatea. Informazio gehiagorako, jo globernance.org webgunera.

Azaroak 18, astelehena

Bastida Aretoa

Informazio gehiago eta izen-ematea: globernance.org

globernance.org

@Globernance

@globernanceIGD

Globernance

# Berbagunea

## Euskaraz hitz egitea, euskara eta euskaraz partekatzea



Beste urte batez, Berbagunea antolatuko da Azkuna Zentroan. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko euskaltegien sarearekin lankidetzan sortutako topagunea da Berbagunea, eta egunerokotasunean euskararen erabilera bultzatzea du xede.

'Euskaraz hitz egitea, euskara eta euskaraz partekatzea' lemari jarraituz, Bizkaiko gizarte, ekonomia, kirol eta politika esparruetako adin orotako euskaldunberri nahiz euskaldunzaharrek aukera izango dute topagune ireki honetan elkarrizketan patxadaz aritzeko. Kulturen Atarian izango da topaketa, egun osoan zehar.

Azaroak 21, osteguna

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik, aurrez hemen izena emanda:

944 162 472

berbagunea@gmail.com

berbagunea.eus

# Gabonak Arte

## Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat



*Hippos*. Gabonak Arte 2018

Abenduak 26 > 28 de
Osteguna > Larunbata

Urtarrilak 2 > 4
Osteguna > Larunbata

Gabonak Artek, Eguberrietan egiten den programa kultural eta ludiko-hezigarriak, esperientzia artistikoak antolatzen ditu haurrentzat eta familientzat, eta Azkuna Zentroko programazioaz esperimentatzeko aukera ematen die horrela.

Gabonak Arte programako jarduerek jendearengana hurbiltzen dute sorkuntza garaikidea, egunero, eta, era horretan, artearen eta artisten bidezko ikaskuntza normalizatzen dute. Ikus-entzuleen gogoeta pizten eta sormenerako gaitasunak, ahalmenak eta trebetasunak garatzen dituzten esperientziak, ikus-entzuleak protagonista bilakatzeko eta haien jakin-mina indartzeko.

Aurten, Gabonak Arte abenduaren 26an jarriko da abian, Leticia Paschettaren paisaia ludikoarekin; hor, arte, arkitektura eta jolasaren arteko mugak aztertu ahal izango ditugu, desberdintasunetatik abiatuz, baina eragin-trukea izateko esperientzia berriak sortuz. Mugimendua, musika, hitza, bideoa eta objektuak nahasten dituzten antzerki-proposamenak izango ditugu, hain zuzen, Cris Blanco, Jorge Dutor eta Guillem Mont de Palol artisten *Lo Mínimo*. Era berean, Mama Crearen *Bapateko Istorioak* lanean menturatuko gara, ez-ohiko tokietako bat-bateko kontakizunak entzuteko.

Programaren aurrerapen gisa, *Pequeño Big Clue* bitxia eta Ene bere laguna nabarmentzen dira, haien proposamen plastikoan keinua, dantza eta arte bisualak harremanetan jartzen baitira, txikienek eta beren laguntzaileek jolasteko duten desira akuilatzen duen esperientzia bat eskaintzeko. Bestetik, Crassh Babiesen eskutik, ‘crassh’ munduan barrena bidaiatuko gara, perkusioa, mugimendua eta komedia bisuala bateratuz.

Programako gainerako jarduerak azarotik aurrera emango ditugu ezagutzera. Belaunaldien arteko esperientziak izango dira, kultura esperimentatzeko aukera emango dutenak, arte garaikidea, zuzeneko artea, musika, zinema, ikus-entzunezkoak, literatura eta ilustrazioa uztartuta.

EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA

Praktika Artistikoak

Honekin lankidetzan egina:

ARTISTA X ARTISTA

# Alina Aguila eta Tana Garrido

Alina Aguila (Villa Clara, Kuba, 1987) Kubako egoiliarra da, Carlos Garaicoa estudioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, Tana Garridorekin batera, Bilbon praktika artistikoen egonaldian jarduteko hautatutakoa.

Artistaren lanean, objektuaren xehetasunik txikienak eta haren pertzepzioak eragindako kezka eta manipulazioa agertzen dira, eta indibiduo-materia-espazioen arteko harremana desitxuratu, eta eskalak -fisikoak eta psikologikoak- aldatzen dira. Artistak azaltzen duenez, «arte minimalak keinuen adierazpen subjektibo guztiak kentzen zizkion objektuari. Nire lanean, inbertsio-operazio bat egiten du, egitura minimal baten azpian; ikusleak zoom egiten du imaginario indibidualeko gune arkeologikoetan, non ezinbestekoa den oroitzapenera jotzea. Espazio mentalak pieza bakoitzean makeatutako espazio fisikoa gainditzen du, eta bera materialen eta amets-, eldarnio- eta haluzinazio-prozesuen hizketaldi bat du».

Aldi berean, Tana Garrido (1989) artista Habanara itzuliko da, bere proiektuaren bigarren aldiarekin aurrera jarraitzeko. Artista honen proiektua Kubako espazio garaikidearen ikus-entzunezkoen behategi bat da. Artistak euskal sorburuko emakume kubatarren lekukotasuna jaso du, generoaz, lurraldeaz eta oroitzapenaz hausnartzeko. Sortzaileak dioenez, «prozesuak hainbat etapa izan ditu: Ikerketaren lehen



Alina Aguila. *Recuerdos en espiral* (2019)



Tana Garrido

aldia hemen izan da, Euskal Herrian; bigarrena, Habanan, ingurunearekin eta pertsonekin kontaktuan, eta emakume horiekin guztiekin harremanetan; eta hirugarrena, aurreko guztia bideoan eta audioan erregistratzea eta gauzatzea izan da. Azkenik, egonaldiaren azken aldi honetan, Habanan bizi izandako guztia Euskal Herriko ingurunearekin jarri nahi dut harremanetan».

Bi egonaldien emaitza aurkezteko, erakusketa bat antolatuko da 2020an.

## Alina Aguila Ferrer

Villa Clarako artista honek (Kuba) Arte Plastikoen Leopoldo Romañach Akademia Profesionalean ikasi zuen (Villa Clara, 2008), eta, gero, Arteen Goi-mailako Institutuan (ISA) jarraitu zuen (Habana, 2013). Egin dituen erakusketen artean, hauek nabarmentzen dira: *Estación Central*. Galería Cristo Salvador (Habana, 2011), *Marcha sobre las uvas*. Centro Wilfredo Lam (Habana, 2013), eta *El jardín de los suecos* (Orestes Hernández artistarekin jarritako erakusketa bipertsonala), Galerie knoerle & baettig, (Winterthur, Suitza, 2017).

## Tana Garrido

Tana Garridok era berean lantzen ditu esparru dokumentala, arte garaikidea, saiakera bisuala edota dinamizazio kulturala. Programatzailea eta Emakumeek egindako Film Laburren BENDITA TÚ Zinemaldiaren (Buenos Aires-Madril-Bilbo) sortzailekidea izateaz gain, SC kolektiboko kidea da; eta, hor, beste lankideekin batera, tailerrak ematen ditu eta Swap Footage jardunaldiak antolatzen ditu urtero, ikus-entzunezkoen arloko esperimentazioaz eta partekatutako materialez egindako lanaz aritzeko. Edinburgon egiten den Iberoamerikako Zinema Dokumentaleko IBERODOCS Jaialdiko programatzailea izan da lehengo urtera arte, eta, gaur egun, film luzerako lehen gidoia idazten ari da.

Sabadell Fundación

Fundación Banco Sabadellek egonaldi artistikoen Amphitryon programa babestendu, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.

etxepare euskal institutua

Praktika Artistikoen egonaldia euskal hizkuntza eta kultura mundu osotik zabaltzeaz arduratzen den Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du.

HEZKUNTZA PROGRAMA



# HEZKUNTZA PROGRAMA


## IKASTETXEEKIN ITUNDUA

101 *Gogo zatiak*. David Hornback. PlayTime Laborategia

102 Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

105 *La memoria del cuerpo: formas en el espacio-tiempo*. Dokumentala

106 Bilbon Eskolatik Antzerkira

## HAURRAK ETA GAZTEAK

104 Bilboargazki 2019

108 JokuPlay

109 Robotika, programazio eta bideojokoen diseinuko tailerrak. Camp Tecnológico

## HELDUAK

100 *Inausteko garaia*. Collage tailerra. Susana Blasco

103 Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak

107 Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia

# Inausteko garaia. Collage tailerra

## Susana Blascoren proiektua

Susana Blasco diseinatzaile grafiko, ilustratzaile eta collage-egileak collage analogikoko teknikei buruzko tailer teoriko-praktikoa proposatu du, Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuaren esparruan.

*Inausteko garaia* lanean teknika horretara hurbiltzen da, esperimentaziotik, gogoetatik eta jolasetik abiatuta. Era askotako ariketak egiten dira hipotesi desberdinak aintzat hartuta, eta bereziki azpimarratzen da baliabide hori erabiliz ideiak eta kontzeptuak nola jorratu eta ilustratu. Teknika errazenetatik urratzaileenetara, geometrian, Dadaismoan, mihiztaketan edo collage esperimentalean barrena joz. Hori guztia antzinako aldizkari eta argazki piloa esku artean hartuta. Beste alde batetik, ibilbide teoriko bat osatzen da, collagearen historiari eta baliabide hori erabili duten artistei eta mugimendu nagusiei buruzko irudiak proiektatuta. Tailerreko helburu nagusia da itxuraz erabilerraza den teknika baten ezin konta ahala aukera sortzaile, formal eta estilistikoak aurkitzea, eta proiektu grafikoetan eta artistikoetan nola erabili ikastea.

Azaroak 13 > 15
Asteazkena > Ostirala

18:00 - 20:00

Mediateka. Medialab

Helduentzat
Gehienezko partehartzaile kopurua: 20

30€ / 25€ Az Txartelarekin
Izen-ematea:
azkunazentroa.eus

**SUSANA BLASCOK** *No rain, no gain* proiektua du erakusgai Arriquibarreko fatxadan, aurkitutako argazkiak ebakiz eta fotograma eran berriz moldatuz osatutako hiru collageko triptikoa, euri-intentsitate desberdinekin jariatzen den diskurtsoa sortzen duena. (Informazio gehiago XX orrian)



# Gogo zatiak

## Gogoa eta norberaren irudia zatitu, berregiteko gero

David Hornback. PlayTime Laborategia

PlayTime Laborategia, artearen izaera aztertzen duen programa –artea jakintzaren eta eraldaketaren eremutzat hartuta–, Mabi Revueltak asmatua eta zuzendua, urrian itzuliko da, David Hornback argazkilariaren proposamen berri batekin: *Gogo-zatiak*.

Laborategi honen helburua da kameraren aurrean hiru minutuz sortzen den espazio eta denbora 'tarte' hori aztertzea, baina gaur egungo tresna bat erabiliz: telefono mugikorra. Erretratua egiten zaien bitartean, jabetuko dira beren gogoaren jarioaz, gorputzari ez zaionean mugitzen uzten. Beren pentsamenduen eta ideien oharren bitartez, eta modu grafikoan beren irudiarekin nahastu eta gero, parte hartzaileek gogo eta gorputz zatiak berregituratuko dituzte, beren niaren konstelazio berriak sortzeko.

Laborategi hau gidoi beraren inguruan egituratutako prozesuen sorta bat da, artista desberdinek -nork bere interes profesionalen esparrutik- egindako hezkuntza-proposamenen modura antolatuta.

---

**DAVID HORNBACK** (LA, 1962). Besteak beste, National Geographic, GEO, Time, NYTimes eta Newsweek hedabide grafikoetan argitaratu ditu argazkiak. Pulitzer Prize irabazi zuen 1990ean, San Jose Mercury News egunkariko lankideekin batera, "Loma Prieta" (SF) lurrikarari buruzko erreportajearekin. Lau kontinentetatik ibili da bere lanekin: Berlingo murruaren erorketaren, Sevillako 1992ko Erakusketa Unibertsalaren eta Normandiako lehorreratzearen 60. urtemugaren berri eman du, besteak beste. Argazki batzuetan, jokoa garrantzizko osagaia da horiek egiteko. Hornbacken lanik nabarmenenetan bizitza erreala bere horretan erregistratzen da, aldaketarik gabe, Street Photography deituaren funtsari eutsiz, unearen behaketaren bitartez.

---

Urriak 15 eta 16
Asteartea eta asteazkena

Urriak 12, 13 eta 14
Asteartea > Osteguna

Azaroak 10, 11 y 12
Asteartea > Osteguna

10:00 - 11.30
Lantegia 1

Hizkuntza: Gaztelania eta ingelesa

Ikastetxeekin itundua.

DBHko bigarren zikloko, Batxilergoko, Irakasleen Unibertsitate Eskolako eta Arte Ederren Fakultateko ikasleei, eta, orobat, proposamenarekin interesa duten bestelako elkarteei eta taldeei zuzenduta.

Informazioa eta erreserbak:
944 014 014 /
azkunazentroa@azkunazentroa.eus

SMART PLACES
Co-funded by the Creative Europe Programme of the European Union

# Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

## Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

Tailer teoriko eta praktikoa, non era ludiko eta atseginean, musika esperimental eta soinu-arte garaikidea hurbilduko die gazte eta nerabeei, XX. mendeko mugimendu eta artista garrantzitsuenetik, soinu eta pertzepzioak plastikoki esperimentatzera.

Jean Luc Guionnet, Hotsetan programako artista egoilarrak, Oier Iruretagoienak emango duen tailerrean lagunduko du.

**OIER IRURETAGOIENA** (Errenteria, 1988) artista da eta Bilbon bizi da. Eskulturaren, soinuaren eta testuaren arteko bide erdian aritzen da lanean. Arte Ederretan lizentziatu zen UPV/EHUn 2011n, eta banakako erakusketak jarri ditu Bartzelonako Halfhousen (2014), Donostiako Egiako Kultura Etxean (2013) eta Gasteizko Montehermoso Kulturunean (2011). Horrez gain, bestelako musikei buruzko Ertz Jaialdian (2014) eta Bartzelonako Cicle HUM zikloan eta L'ull cec plataforman aurkeztu du bere lana. Soinu-bandak egin ditu dantza-lanetan, antzerkian, irratian eta ikus-entzunezkoetan, eta Bilboko Le Larraskito klubeko koordinatzaileetako bat da.

Urriak 14 > 18
Astelehena > Ostirala

11:00 - 12:30
12:30 - 14:00
Lantegia 2

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania

15-30 urte

Ikastetxeekin eta Lanbide Heziketako zentroekin itundua



# Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak

## Soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko hiruhileko saio trinkoak

Publiko helduari zuzendutako hiru hileko topaketa hauetan inprobisazio askea erabiltzen da medio bezala, ez helburu gisa ezinbestez, baizik eta funtsezko garrantzia emanez entzuteari eta horren bidez egindako hausnarketari. Laborategi honen bidez, kontzientzia piztu nahi dugu soinuak entzuteko, musika 'normalaren' bideetatik kanpo sormena garatzeko. Horrez gain, soinu-sorkuntzako oinarrizko alderdiez hausnarketa egin nahi dugu (isiltasuna-soinua-denbora), eta hainbat aukera eman nahi ditugu soinua lantzeko, hizkuntza estandarizatuaren aginduetatik harantz doan pertzepzio-kontzientzia lortu nahian.

Miguel A. Garcíak gidatuko ditu saioak, Enrike Hurtadoren eta Oier Iruretagoienaren laguntzaz.

**MIGUEL A. GARCÍA** aka Xedh (Gasteiz) Estatuko soinu-artistarik geldiezinetako bat da, eta bere proposamenak instalazioa, konposizioa eta inprobisazio elektroakustikoa hartzen ditu barnean. Musikaria izateaz gain, Bilboko Le Larraskito klubeko sortzailea eta Zarata Fest jaialdiaren zuzendaria da. Bi plataforma horiek musika alternatiboak edo ausartak eta antzeko diziplinak zabaltzen aritzen dira.

Urriak 4 > 6
Ostirala > Igandea

Urriak 4, ostirala
17:00 - 20:00

Urriak 5, larunbata
11:00- 14:00 eta 16:00 - 19:00

Urriak 6, igandea
Jendaurreko aurkezpena

Bastida Aretoa

Helduak

Sarrera dohainik, aurrez hemen izena emanda: azkunazentroa.eus



# Bilboargazki 2019

Bilboargazkik, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaorekin elkarlanean eta *Open Codes. We are data* erakusketaren barne, argazkigintzako tailer eta irteera bat antolatzen du haurrentzat. Jardunaldia hiru ordukoa izango da. Hasteko, oinarrizko konposizioko workshop-a, eta, gero, argazkigintzako rally txiki bat egingo da Az ingurutik. Gainera, Zirtaka Antzerki Taldearen parte-hartzearekin kontatuko da aurten, umeentzat modelo gisa jokaturik.

Irudien hautaketa bat ikusgai egongo da Euskal Herriko Argazkigintza Taldeen Federazioak antolatutako jaialdi honen web orrian.

Plazak mugatuta daude, eta jarduera honetan aurrez parte ez duten haurrei emango zaie lehentasuna.

Parte-hartzaile bakoitzak bere argazki-makina eraman beharko du jarduera honetan parte hartzeko

Urriak 27, igandea
10:30

Izen-ematea: Az Info eta azkunazentroa.eus

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

Bilboargazki:

bilboargazki.com

Zirtaka Antzerki Taldea:

kurkuluxetan.eus



Edición anterior de Bilboargazki

# La memoria del cuerpo: formas en el espacio-tiempo

## Roberto Menéndezen dokumentala

Roberto Menéndezek zuzendutako *La Memoria del cuerpo: formas en el espacio-tiempo (Gorputzaren memoria: Espazio-denborako formak)* dokumentala urtarrilean proiektatu zen Azkuna Zentroan, baina berriz izango dugu programazioan, Batxilergoko ikastetxeekin itundutako hezkuntza-saio gisa.

Arte eszenikoetako ikasleei zuzendutako emanaldian, dokumentalak bidaia bat egiten du dantza garaikidean barrena, Dantzako Sari Nazionala irabazitako bost lagunen eskutik Daniel Abreu, Chevi Muraday (Losdedae), Jon Maya Sein (Kukai Dantza), Sol Picó eta Carmen Werner (Provisional Danza). Bertan, urtea joan, urtea etorri, hamarkada bat joan, bestea etorri, dantzariak agertokira bultzatzen dituen motibazioak bistaratzen dira.

Funtsean, proiektu bisuala da, hitzaldi filosofikorik eta historikorik gabea, eta dantzarien mugimenduak eta eguneroko bizitza dira protagonista: dantzariak edo koreografoak nola bizi diren, nola prestatzen diren, nola sortzen dituzten haien koreografiak, nola gogoratzen diren ikuskizunetako hainbeste mugimendurekin, nola bizirauten duten konpainia batean, ikuslego zabalarentzat dantza garaikidea bezain ezezaguna izan daitekeen arlo batean.

Isa Suarez nazioarteko musikagileak sortutako jatorrizko soinu-banda magikoa dute lagun dantzarien eta koreografoen mugimenduek, eta esparru bat eskaintzen die. Gainera, nor bere emankizunean ikus daiteke, bakoitza bere estilo bereizgarriarekin; dokumentalaren luze-zabalean azaleratuko dira berezko ezaugarriak. Hauek dira ikuskizunak: *Perro*, Daniel Abreu; *Oskara*, Kukai Dantza; *One-hit wonders*, Sol Picó; *Black Apple*, Losdedae, eta *Una mirada sutil*, Provisional Danza.

---

**ROBERTO MENÉNDEZEK** Arte Ederretako ikasketak egin zituen EHUn, Ikus-entzunezkoen espezialitatean, eta Zinema Errealizazioa ere ikasi zuen Londresen. Hainbat urtez telebistan egin zuen lan Madrilen, erreportaje kulturaletako edo sozialetako saioetan eta dokumentaletan. Aldi berean, ibilbide independentea garatu zuen, zenbait dokumental eta fikziozko laburrak eginez. Haren dokumentalen artean nabarmenena Los niños de Guernica tienen memoria (Gernikako umeek badute memoria) izenekoa da. Horrez gain, itzultzailea eta ilustratzailea ere bada.

---

**Abenduak 4, asteazkena**

12:00
Auditorioa

Arte Eszenikoetako Batxilergoko ikastetxeekin itundua

**FITXA TEKNIKOA**

**Ekoiztutako urtea**:
2018

**Iraupena**:
28:42 minutu

**Zuzendaria, ekoizlea eta gidoilaria**:
Roberto Menéndez

**Argazki-zuzendaria**:
Roberto Rivas

**Muntatze-lana**:
Ruth Carreras

**Musika**:
Isa Suarez

@MemoriaDeCuerpo

# Bilbon Eskolatik Antzerkira

## Mitusu Elkartea

Bilboko Udalak, Mitusu Elkartearekin lankidetzan, arte eszenikoak hezkuntzarako tresna gisa erabiltzearen aldeko apustua egiten du, eta ikastaro honetan jarraipena emango dio bide horri, Bilbon Eskolatik Antzerkira programaren bidez.

### Onírica Mecánica

*Alizia eta hiri ikusezinak*

Lewis Carrollen *Alizia Lurralde Miresgarrian* eta haurrentzako beste liburu batzuk garrantzitsuak dira neska-mutilentzat, ateak zabaltzen dizkietelako ezinezko munduetarantz, eta helduentzat ere bai, mundu fantastiko horrek hor jarraitzen duela gogora ekartzen digutelako.

*Alizia eta hiri ikusezinak* ikuskizuna Alizia Lurralde Miresgarrian liburuaren bertsio aske bat da. Eszenaratze multidiziplinarra du (proiekzioak, soinu-espazioa, argi-efektuak, maskarak), eta Lewis Carrollek sortutako imajinarioetan sakontzen du ikuspegi garaikide batetik. Bidaia bat proposatzen digu beste mundu batera, Lurraren barnealdera, gure baitara joateko. Abentura honek gonbit egiten digu bere alegiazko zulo, arrakala eta sumendietatik lerratzeko. Leku horietatik errealitatea atzean uzteko, ikusezina den horretara doan iniziazio-bidaia batean.

### Mons Dansa

*Paperezko ametsak*

Zenbat istorio geratzen ote dira harrapatura marrazkilariek, idazleek eta poetek paperontzira botatzen dituzten paperen barruan? Jakin dugu istorio horiek lotan geratzen direla paperen barruan, norbait erreskatatuko dituen zain...

Mons Dansa konpainiak horietako batzuk berreskuratu ditu, eta dantza, bideo, magia eta umorearekin nahastu ditu, *Paperezko ametsak* ikuskizuna sortzeko. Istorio honetan, bi pertsonai amaigabek eta inperfektuk paperezko bilgarritik ateratzea lortzen dute, baten batek hor ahaztuta utzi baitzituen, eta topatzen dituzten istorio ahaztu guztiak askatzeari ekiten diote, haiekin jolasteko eta bizi berria emateko. Ikusle txikiek ikusi ahal izango dute nola eraldatzen den paper txiki bat, milaka gauza desberdin bilakatuta: lore, txori, arrain edota soinu... Paperezko ametsak dira. Esnatuko al ditugu?

**Onírica Mecánica**
***Alizia eta hiri ikusezinak***

Azaroak 25 eta 26
Astelehena eta asteartea

9:45 - 11:30 / 50’
Auditorioa

FITXA ARTISTIKOA

Egilea eta zuzendaria:
Jesús Nieto

Antzezleak:
Alicia Bernal, Brígida Molina, Estela Santos, Mario Moya

**Mons Dansa**
***Paperezko ametsak***

Azaroak 28 eta 29
Osteguna eta ostirala

9:45 - 11:15 / 45’
Auditorioa

FITXA ARTISTIKOA

Egilea eta zuzendaria:
Claudia Moreso

Antzezleak:
Sarah Anglada, Sara Pons

Ikastetxeekin itundua.
Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako ikuskizuna
Informazioa eta erreserbak:
944 014 014
azkunazentroa@azkunazentroa.eus

# Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia

Haritu, EDE - Suspergintza Fundazioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok sustatutako Kultura digital eta teknologiako laborategi berriak 2019ko irailaren 16tik abenduaren 14ra arte zabalduko ditu ateak. Laborategiko programazioak atal hauek ditu, besteak beste: teknologia espezifikoko tailerrak, prestakuntzako zikloak teknologia-arloko arrakalak eta joerak leuntzeko, hitzaldiak eta aurkezpenak.

## PROGRAMA

### Teknologia eta fabrikazio digitalaren hastapenak

**Irailak 16 > Urriak 25**
**Azaroak 4 > Abenduak 13**
**Astelehenetik ostiralera / 10:00 - 13:00**

### Sintetizatuz: soinu elektronikorako eta pentsamendu konputazionalerako sarrera

**Urriak 2 > Azaroak 27**
**Asteazkenero / 17:30 - 19:30**

### Laborategiko teknologiaren hastapenak

**Urriak 10, osteguna**
17:00 - 19:30: Laser bidezko ebaketaren hastapenak
**Urriak 24 eta 31, osteguna**
17:00 - 19:30: 3D inprimagailu batekin egunez egunekoa formateatuz
**Azaroak 7 eta 14, osteguna**
17:00 - 19:30: Arduino, hardware libreko tresna hezigarria
**Abenduak 11 eta 12, asteazkena eta osteguna**
17:00 - 19:30: Datuekin gezurra esan: manipulazioak eta gezur zuriak

### Infrasonoras

**Azaroak 28 eta 29, osteguna eta ostirala**
17:00 - 19:30: Ezagutza nola bihurtzen den botere, eta alderantziz
**Abenduak 4 eta 5, osteguna eta ostirala**
17:00 - 19:30: Cyborg gorputza

Laborategiari buruzko informazio gehiago 56. or.

**Irailak 16, astelehena > Abenduak 13, ostirala**

**Lantegia 2**

**Sarrera dohainik**
**Izen-emateak**
**azkunazentroa.eus**

**Sustatzen du:**
Fundación EDE-Suspergintza eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

**Laguntzaileak:**
Fundación Mutua Madrileña, Bizkaiko Foru Aldundia

# JokuPlay

## Mediatekako jolasgunea

*Open Codes. We are data* erakusketa dela-eta, Mediatekako Jokuplay espazioak zenbait bideo-joko eskainiko ditu, hain zuzen, kodeen eta programazioaren beharra dutenak puzzleak eratu, soinuak sortu edo erresumak salbatzeko. Erronka dibertigarria eta hunkigarria, mota guztietako erabiltzaileei zuzenduta.

### Human resource machine (PC)

Bulegoen eraikin izugarri handi batean girotutako puzzle-jokoa.

### Stone Story (PC)

Mundu ilun eta arriskutsu batean kokatutako rol-jokoa. ASCII sinboloekin animatuta dago.

### Robo Instructus (PC)

Puzzle-joko honek programazioan ardazten da erronkak gainditzeko.

### Patapon (PS4)

Agindu zehatzak eman beharko dizkiozu tribu dibertigarri bati. Tribua oinarrizko lau soinu dituen danbor magiko baten erritmoan baizik ez da mugitzen.

### Sound Shapes (PS3) / Txikiland

Sortzeko askatasuna uzten digu, geure mailak diseinatzeko, musika-temak konposatzeko eta aldi berean geure joko-mundua eraikitzeko.

**Ordutegia:**

Astelehenetik ostiralera:
9:00 - 21:00

Larunbatak, igandeak eta jai-egunak:
11:00 - 21:00

14 urte gorakoentzat
Mediateka. 2. solairua
Sarrera dohainik

Laguntzailea:

IKEA®



# Robotika, programazio eta diseinuko tailerrak

Camp Tecnológicok teknologiari lotutako hainbat jarduera antolatzen ditu, 14 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta. Kanpamendu, asteburuko klub edo ikastaroaren formatua hartuta, hezkuntzako proposamen hauek zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikarekiko interesa pizten dute neska-mutilengan.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko hainbat espaziotan egiten diren tailer hauetan, hastapenak ikasten dira hainbat teknologiatan, esaterako, robotikan, programazioan eta bideo-jokoen garapenean, edota 3Dko diseinuan eta inprimatzean, gazteek, programazioaren logika erabiliz, beren gailuak eta aplikazioak irudikatu eta eraiki ahal izan ditzaten.



Camp Tecnológico
Kulturen Ataria

**Eskolaz kanpoko jarduerak**

Irailaren 23tik aurrera
Astelehena > Osteguna

17:30 > 18:30
18:30 > 19:30

**Asteburuko kluba**

Urriaren 4tik aurrera
Astero edo txandakako astetan
Ostirala: 18:00 - 20:00
Larunbata: 10:00 - 12:00 / 12:00 - 14:00h

**Larunbatak**

Irailaren 28tik aurrera
Txandaka, goizez edo arratsaldez
10:00-13:30 eta 16:30-20:00

**Gabonetako kanpamendua**

Robotikako tailerrak. Bideo-jokoak sortzea: Minecraft, Unity, Roblox eta Unreal robotak muntatzea eta programatzea: Maker Experience/ 3D inprimatzea / Dronak eta askoz ere kontu gehiago.

Informazioa jasotzeko eta izena emateko: camptecnologico.com

Az Txartelarekin %5eko deskontua

CAMP TECNOLÓGICO

AZ

# Mediateka, pentsatzeko, konektatzeko eta sortzeko lekua

Azkuna Zentroko Mediateka elkartzeko gune eta jakintza sustatzeko espazio egokia da, funts bibliografiko inprimatua, ikus-entzunezkoa eta informatikoa du ardatz, eta ikusleen komunitate desberdinei zabaldutako kultura-programazioa eskaintzen du.

Bederatzi urte baizik ez dira pasa –edo honezkero bederatzi urte joan dira– abian jarri zenetik. Kronologikoki irudi luke denbora gutxi dela, baina, aldi honetan gizarteak bilakaera arina izan duenez, ezinbestekoa da gunea eguneratzea. Etengabeko aldaketan bizi gara, ingurune aldakorrean, eta, beraz, ezinbestez hausnartu behar dugu edukiez, berrikuntzak egin behar ditugu, eta forma, espazio eta eredu berriak proposatu behar dizkiogu gizarteari.

## Mediateka berrikusia

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon prozesu bat jarri dugu abian espazio hau berrikusteko, zentroaren zutabeetako bat delako.

Mediateka berrikusi nahi dugu, eta, aldatzeko, eraldatzeko eta eguneratzeko prozesu honetan, haren ADNari eutsiko diogu, sorkuntza artistiko, ikaskuntza eta esperimentazioko beste eredu bateko espazio baterantz jo arren, pertsonei bide emanda kultura praktika, prozesu eta esperientzia gisa bizitzeko.

Mediateka bat baino gehiago, pentsatzeko, konektatzeko eta sortzeko leku bat izan dadin lortu nahi dugu. Sorkuntza eta jakintzako espazio gisa hartzen dugu, kultura garaikidean espezializatutako gune modura, erabiltzaileak jardueraren eta zerbitzuen erdigunean jarrita.

Oinarri horiek abiaburutzat hartuta ekin diogu prozesuari, espazioa eta Mediatekaren lerrokatze estrategikoa eraldatzeko, lortu nahi duguna bilaka dadin: harrera egiteko eta harremanetan jartzeko espazio integratzailea.

Focus group-ak egiten ari gara, kanpoko eta barruko elkarteei entzuten, langileen baldintzak eta zerbitzuak hobetzeko arloak partekatzeko. Entzunaldi aktiboko prozesua pixkanaka gauzatuko da, eta bilduma egokitu eta beste toki batean kokatuko da, zentroko programazio-ildoak aintzat hartuta: arte garaikidea, zuzeneko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, kultura digitala, gizartea eta literatura. Programazio hedatu bat, hitzaren adierazpide guztiei, kultura digitalari eta pentsamendu garaikideari estu lotuta, eta zentroko ikusleen komunitate desberdinei zuzenduta.



# Lantegia. Ideien LABorategia, arte eta komunitateen habitat berria.

Lantegia. Ideien LABorategia da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok proiektu artistikoak ekoizteko eta ikustarazteko duen espazio berria, eta parte-hartzea, sorkuntza, berrikuntza, jakintza, irisgarritasuna eta dibertsitatea sustatzen ditu. Arte eta komunitateen habitat bat da, oso berritzailea, artistikoa eta nazioartekoa.

Lantegia abian jartzea xede estrategikoa da 2019-2023 Proiektu Programaren esparruan, lan-ingurune irekia, lankidetzakoa eta eskuzabala sortu behar baita, sorkuntza artistikoa ikerkuntzatik hurbilago dagoen prozesu gisa hartuta, eta ateak ekoizpen eta esperimentaziora irekirik, Bilboko sorkuntza-ehunaren osasuna sendotzeko.

Lantegia. Ideien LABorategiak hiriko kultura-ekoizpena sustatu nahi du, parte-hartzea, konektibitatea, berrikuntza, dibertsitatea eta esperimentazioa erabiliz. Lankidetzako komunitate profesionalak sortu nahi ditu, kultura eta sorkuntzako industrien sektorearen harrobia izan daitezen, hain zuzen, alderik sortzaileena. Kontaktu, ideia-truke, prozesu eta proposamen artistikoen bidez kultura garaikidea ekoizteko espazio bat eratu nahi du. Eta prestakuntzako proposamenak garatu, jakintza garaikidea sustatzeko eta azaltzen ari diren profesionalei laguntza emateko.

Une honetan Haritu, kultura digital eta teknologiako laborategia dago abian Lantegian. Edozeinek izango du aukera hurbiltzeko eta teknologiak probatzeko, esaterako, fabrikazio digitala, programazioa edo elektronika. Edota hausnartzeko eta zalantzan jartzeko zer-nolako eragina duen teknologia garaikideak gugan.

Lantegiko BAT Espazio berria proba- eta saiakera-areto gisa edo esperimentaziorako estudio modura egituratu da, eta Komisario Berriak (KB) erakusketa du ikusgai, egile hauen kuratore-proiektuekin: Garazi Ansa (Oiartzun, 1989), Marc Badal (Bartzelona, 1976) eta Laura Vallés (Castellón, 1984). Bestetik, Lester Álvarez eta José Ramón Ais abendutik daude BAT Espazioan, Azkuna Zentroan izandako egonaldi artistikoan egin duten lana erakusten.

Lantegian kokatutako Egonaldien zentroak jarraipena ematen die Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko nazioarteko eta hurbileko egonaldien dinamikari, eta bultzada berritua da, artistei aukera ematen baitie prozesu eta proiektu artistikoak garatzeko eta ekoizteko.



# dendAZ. This is Basque Design: diseinuari irekitako leiho bat esperientzia gisa

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok dendAZ. This is Basque Design inauguratu du Atarian, diseinuari zabaldutako leiho bat esperientzia gisa. Espazio publiko honetan, artistek ikusgai jar ditzakete beren prozesuak eta praktikak; haien lanak, produktuak eta zerbitzuak topa ditzakegu bertan. dendAZ proiektu estrategikoa da Azkuna Zentroarentzat, loturak eta sorkuntza-prozesuak bultzatzen baititu ikusleen komunitateen eta hemengo artisten eta diseinatzaileen artean, eta horrek kontzientzia pizten baitu erosketa sortzaile berriaz, diseinuaren balioaz eta sorkuntzaz. Bestalde, dendAZek zubiak egin nahi ditu, sorkuntzako sektoreak eta kultura- eta sorkuntza-arloko industriak harremanetan jartzeko.

## Artea eta diseinua

Sortzaileak dira proiektu honen ardatza. Hasteko, Bilbo, Bizkaia, Euskadi, Nafarroa eta Akitania berriko 20 artistak eta diseinatzailek hartuko dute parte, eta denboraren poderioz gehiago izango dira.

Diseinua sustatzeko eta ikustarazteko ekimen honetan, Azkuna Zentroak Bilboko Udalaren, BEAZ eta EIDEren, eta Euskadiko eta Nafarroako Diseinatzaileen Elkartearen laguntza du; talde bat eratu dute saltokian dauden proiektuak hautatzeko.

## This is Basque Design

Salgaiak sortzeko, behar bezala erabili dira teknologia, kolorea, materialak eta fabrikatzeko prozesuko osagai guztiak, iraunkortasuneko irizpideak betez, ingurumenean ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko. Azkuna Zentroak prozesu osoan parte hartu du, kalitatea eta iraunkortasuna lehenesteko. Aukera-sorta zabala dago: modako gaiak, paper-dendakoak, liburuak eta argitalpenak, oparitzeko gaiak eta dekoraziokoak. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok kultura-programazioari lotuta atera dituen argitalpenak ere salgai daude, bai eta hemengo hornitzaileek egindako korporazioko merchandising-a ere.

dendAZ. This is Basque Design proiektuak online denda du, produktu batzuk eta Zentroaren argitalpen guztiak eskuratzeko.

**Urrian multiformatu jardueren programa jarriko da abian, diseinatzaileen lana erakusteko. Programa ikus dezakezu azkunazentroa.eus helbidean**



# Entrenamendu Funtzionalerako Areto berria JFZn

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Jarduera Fisikoko Zentroak 250 metro karratuko areto berria ireki du, entrenamendu funtzionalerako diseinatua eta egokitua; hor, erabiltzaile bakoitzak bere beharretarako eta prestakuntza fisikorako egokiena den ibilbidea osatu ahal izango du. Hirugarren solairuan kokatutako gune hau zabalduta, JFZren kirol-eskaintza areagotu egin da, astero lurreko eta uretako 390 jarduera baino gehiago egin baitaitezke, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaotik atera gabe.

Entrenamendu funtzionalaren ardatza gihar guztiak oro har lantzea da, eguneroko mugimenduak imitatuz, esaterako, oinez ibiltzea, jauzi egitea, eskailerak igotzea eta zama igotzea edo herrestan eramatea. Ariketa horrek nabarmen lantzen du gorputza egonkortzeko muskulu-sistemen garapena, hala nola abdominalak, lunbarrak, abduktoreak eta aldaka-biratzaileak eta eskapula-egonkortzaileak, muskuluaren indarra optimizatuz, ez haren tamaina.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Entrenamendu Funtzionaleko Aretoan bi orduko saioak egin daitezke, erabiltzaileen trebetasun biomotorrak lantzera eta koordinazioa eta oreka fisikoa eta mentala hobetzera bideratuta. Muskulu-muina lantzen da gartsu, gorputzaren grabitate zentroa inguratzen duen muskulu-gunea. Horretarako, errutina horiek hainbat mailatara egokitzen dira, edozein pertsonak jarduerak egin ahal izateko aukera emanez.

Entrenamendu Funtzionaleko Aretoa erabiltzea Tarifa Premium Osoan sartuta dago (aurrez erreserbatuta). Horrez gain, noizean behingo sarrerak eskuratu ahal dira, eta astean egun bateko edo biko ikastaroak eskaintzen dira Azkuna Zentroko eta Bilbao Kirolak-eko harpidedunentzat eta harpidedun ez direnentzat.

### Familientzako aquateka

Denboraldi berri honetan, JFZk haurrentzako animazio-zerbitzua jarri du abian, 4 urtetik 12ra bitarteko haurrak dituzten familientzat.

Aquateka berrian, aita-amek errazagoa izango dute euren lurreko eta uretako jardueretan trebatzea, adin txikikoek igerilekuko ikastaroetan eta ondorengo 30 minutuko jolas-jarduera zuzenduan parte hartzen duten bitartean, Azkuna Zentroa-Alhondiga Bilbaoko begiraleen zaintzapean. Zerbitzua eskuragarri dago astelehenetik ostiralera, 30 minutuz, adin txikiko ikasle bakoitzak izena emandako igeriketa-ikastaroaren ostean



# Hobekuntza positiboko planak

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon ahalegina egiten dugu sarrera zabalik uzten gure erabiltzaile guztiei, eta irisgarritasuneko neurriak sustatzen eta abiarazten ditugu, kultura- eta sorkuntza-prozesuak garatzean. 2019-2023 Proiektu Programan garatutako hobekuntza positiborako barne-mugimenduan, iraunkortasun-plana jaso dugu, aurrezki energetikoa eta ingurumen-arloko hobekuntza lortzera zuzendutako ekintzekin. Irisgarritasun-plana ere badugu, espaziora eta programaziora iristeko sarbide unibertsala bermatze aldera; bai eta berdintasun-plana ere, era eta adin guztietako pertsonentzako espazioa sortzeko, berdintasunean oinarrituta.

### Iraunkortasuna

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok oraingo eta etorkizunerako zentroa izan nahi du, sentsibilizatua eta aktiboa, ingurumena hobetzera eta baliabideen kontsumo arduratsua lortzera bideratutako ekintza jasangarriak egiten dituena. Diagnostiko-aldian egon arren, ez gara hutsetik hasi. Hainbat neurri hartu ditugu, esaterako, ekipamenduak jarri ditugu igerilekuko berriztapen-uraren beroaren efizientzia altua berreskuratzeko, eta argi halogenoak kentzen, eta LED teknologiarekin ordezkatzen ari gara. Iraunkortasuna zeharkako ardatza da proiektu berrietan, hala nola uztailean zabaldu dugun dendAZ. This is Basque Design saltokian.

### Berdintasuna

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, Bilboko Udalarekin eta udalaren 2019ko urtarrileko ordenantzarekin bat etorrita, konpromisorik handiena hartua du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikekin, berdintasunean oinarritutako gizarte anitza, integratzailea, iraunkorra eta indarkeriarik gabea lortzeko.

Garatzen ari garen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana eta diagnostikoa tresna egokia izango dira, erakundeko egoeraren berri izateko eta aztertzeko (lan-baldintzak, enplegurako sarbidea kudeatzeko eta kontziliatzeko prozesuak), eta, orobat, arlo horretan egon daitezkeen akatsak zuzenduko dituzten neurriak hartzeko.

Erakunde publikoa garen aldetik, berdintasunarekin dugun interesak barnealdea gainditu, eta programazioan barruratzen da, bide ematen baitu emakumeak ager daitezen, hala alde artistikoan nola sozialean. Ikuspegi feminista Azkuna Zentroko programazioaren ADNan dago txertatuta, eta, beraz, espazio batzuk gordetzen ditugu, emakume artisten eta sortzaileen lana ikusgai jartzeko.

### Irisgarritasuna

Irisgarritasun unibertsala helburua izan da Zentroa zabaldu zenetik. Eraikina diseinatzean eta eraberritzean, kontuan hartu zen edozein pertsonak aukera izan behar zuela zerbitzuak erabiltzeko eta zentroko espazioetatik ibiltzeko, haren dibertsitate funtzionalak gorabehera. Hala ere, bikaintasuna lortu nahi dugu irisgarritasun-arloan. Horregatik, lanean ari gara espazioetako esperientzia hobetuko duen sistema bat jartzeko: hala aulkiak eta tenperatura egokia, nola argiztapen-sistemak sarreretan. Kontua da egonaldia ahalik eta atseginen izatea, erabilerarik oneneko esperientzia izateko.

Seinaleak hobetzea da gure helburu nagusietako bat. Seinaleen sistema berria asmatzen ari gara, pertsona bakoitzak ondo jakin dezan nora doan, non dagoen eta beste espazio edo zerbitzu batzuk daudela, une horretan erabili ez arren.


Azkuna Zentroa

AGENDA

## AGENDA
# / URRIA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| UZT. **4** > URT. **26** | | **Nestor Lizalde**<br>*Akelarre Elektrikoa* | 28. or. |
| IRA. **16** > AZA. **15** | | Fatxada<br>**Susana Blasco**<br>*No rain, no gain* | 24. or. |
| IRA. **16** > ABE. **13** | | **Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia** | 56. or.<br>107. or. |
| IRA. **19** > AZA. **16** | | Erakusketa<br>**Garazi Ansa, Marc Badal & Laura Vallés**<br>Komisario Berriak | 20. or. |
| IRA. **30** | | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*La trinchera infinita.* Sail Ofiziala | 50. or. |
| URR. **1** Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| | 20:00 | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*Vendrá la muerte y tendrá tus ojos.* Sail Ofiziala | 50. or. |
| URR. **1 > 31** | Egun osoa | Artista Az Kidea<br>**Oscar Gómez Mata**<br>*Deriben katalogoa* | 34. or. |
| URR. **2** Asteazkena | 20:00 | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*Le rêve de noura.* New Directors Saila | 50. or. |
| URR. **3** Osteguna | 20:00 | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*Gisaengchung / Parasite.* Perlak Saila | 50. or. |
| URR. **4** Ostirala | 17:00 | **Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak** | 103. or. |
| | 20:00 | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*Sorry we missed you.* Perlak Saila | 51. or. |
| | 20:30 | **Barruan. Musika eta gastronomia berrien hiriko ibilaldia** | 74. or. |
| URR. **5** Larunbata | 11:00<br>16:00 | **Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak** | 103. or. |
| | 20:00 | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*Le milieu de l'horizon.* Sección New Directors | 51. or. |
| | 20:30 | **Barruan. Musika eta gastronomia berrien hiriko ibilaldia** | 74. or. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| URR. **6**<br>Igandea | | **Soinu-sorkuntzako eta inprobisaziozko topaketak**<br>Jendaurreko aurkezpena | 103. or. |
| | 20:00 | **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan**<br>*The song of names.* Sail Ofiziala, klausura | 51. or. |
| URR. **8**<br>Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| URR. **8 > 11**<br>Astr. > Ost. | | **Zinexit. Elkarbizitzarako Zinemaerakustaldia** | 52. or. |
| URR. **9**<br>Asteazkena | 19:00 | Hotsetan, Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Jean-Luc Guionnet & Lotus Eddé Khouri**<br>*Reciprocal scores.* Hitzaldia | 76. or. |
| URR. **10**<br>Osteguna | 19:30 | **Matarile Teatro**<br>*Daimon y la jodida lógica* | 62. or. |
| URR.<br>**14 > 18**<br>Ast. > Ost. | 11:00<br>12:00 | Hotsetan, Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak** | 102. or. |
| URR. **15**<br>Asteartea | 10:00 | PlayTime Laborategia<br>**David Hornback**<br>*Gogo zatiak* | 101 or. |
| | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| URR. **16**<br>Asteazkena | 10:00 | PlayTime Laborategia<br>**David Hornback**<br>*Gogo zatiak* | 101 or. |
| | 19:00 | Hotsetan, Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**Jean-Luc Guionnet & Lotus Eddé Khouri**<br>*Reciprocal scores.* Kontzertua | 76. or. |
| URR.<br>**17 > 19**<br>Ostg. > Lar. | 18:00 | **2019 Eremuak Jardunaldiak**<br>*Natura/k* | 32. or. |
| URR.<br>**17 > 24**<br>Ostg. > Ostg. | | **Film Sozialak**<br>**Zinema Ikusezinaren 11. Jaialdia** | 53. or. |

# AGENDA
# / URRIA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| URR. **21** Astelehena | 19:30 | **Zinemakumeak Gara!**<br>**Emakumeek zuzendutako Zinema Erakustaldiaren 24. edizioa** | 54. or. |
| URR. **22** Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| URR. **23** > URT. **26** | | Erakusketa<br>*Open Codes. We are data* | 18. or. |
| URR. **25** Ostirala | 21:00 | Kontzertua<br>**Le Parody** | 78. or. |
| URR. **27** Igandea | 10:30 | **Bilboargazki 2019** | 104. or. |
| URR. **29** Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| URR. **30** Asteazkena | 17:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Fedora* (1978) | 40. or. |
| | 19:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Sans soleil* (1983) + *La Jetee* (1962) | 44. or. |
| URR. **31** Osteguna | 17:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Sans soleil* (1983) + *La Jetee* (1962) | 44. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Fedora* (1978) | 40. or. |

# AGENDA
# / AZAROA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| UZT. **4** > URT. **26** | | **Nestor Lizalde**<br>*Akelarre Elektrikoa* | 28. or. |
| IRA. **16** > AZA. **15** | | Fatxada<br>**Susana Blasco**<br>*No rain, no gain* | 24. or. |
| IRA. **16** > ABE. **13** | | **Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia** | 56. or.<br>107. or. |
| IRA. **19** > AZA. **16** | | Erakusketa<br>**Garazi Ansa, Marc Badal & Laura Vallés**<br>Komisario Berriak | 20. or. |
| AZA. **1 > 3**<br>Ost. > Iga. | | **Bilbao Maker Faire**<br>Teknologia sortzaileen nazioarteko jaialdia | 60. or. |
| AZA.<br>**1 > 30** | Egun osoa | Artista Az Kidea<br>**Oscar Gómez Mata**<br>*Deriben katalogoa* | 34. or. |
| AZA. **5**<br>Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| | 18:00 | **Mahai-ingurua Knowledge Exchange Forum** | 58. or. |
| AZA. **6**<br>Asteazkena | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Mamma Roma* (1962) | 40. or. |
| | 19:00 | Hotsetan, Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa<br>**C. Alex McLean & Sarah Rasines.** Hitzaldia / Entzunaldia | 80. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Una historia nunca contada desde abajo* (2016) + *Nouvelle science vague fiction* (2011) | 44. or. |
| AZA. **7**<br>Osteguna | 17:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Una historia nunca contada desde abajo* (2016) + *Nouvelle science vague fiction* (2011) | 44. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Mamma Roma* (1962) | 40. or. |
| | 19:30 | Dantzaldia 2019<br>**Ferran Carvajal & Trevor Carlson**<br>*Not a moment too soon* | 66. or. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| **8 > 15** AZA. | | **Zinebi**<br>**61º Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao** | 55. or. |
| AZA. **12**<br>Asteartea | 10:00 | PlayTime Laborategia<br>**David Hornback**<br>*Gogo zatiak* | 101 or. |
| | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| AZA. **13**<br>Asteazkena | 10:00 | PlayTime Laborategia<br>**David Hornback**<br>*Gogo zatiak* | 101. or. |
| AZA. **13**<br>> AZA. **15** | 18:00 | Collage tailerra<br>**Susana Blasco**<br>*Inausteko garaia.* | 100. or. |
| AZA. **14**<br>Osteguna | 10:00 | PlayTime Laborategia<br>**David Hornback**<br>*Gogo zatiak* | 101 or. |
| AZA. **15**<br>> URT. **15** | | Fatxada<br>**Ane Pikaza** | 26. or. |
| AZA. **18**<br>Astelehena | | **VI Bilbao European Encounters**<br>*Demokrazia Europan, eta haren kritikak* | 86. or. |
| AZA. **19**<br>Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| AZA. **20**<br>Asteazkena | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*L'annèe dernière à Marienbad* (1961) *Lehengo urtean Marienbad-en* | 40. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Fluidø* (2017) | 45. or. |
| AZA. **21**<br>Osteguna | | **Berbagunea** | 88. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Fluidø* (2017) | 45. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*L'annèe dernière à Marienbad* (1961) *Lehengo urtean Marienbad-en* | 40. or. |
| | 19:30 | Antzerkia<br>**La Tristura**<br>*Future lovers* | 68. or. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
| --- | --- | --- | --- |
| AZA. **22** Ostirala | 21:00 | Kontzertua<br>**Geoff Farina** | 82. or. |
| AZA. **25 > 29** Ast. > Ost. | | **Zinexit: Elkarbizitzarako Zinema-erakustaldia** | 52. or. |
| AZA. **25** Astelehena | 9:45 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Onírica Mecánica**<br>*Alizia eta hiri ikusezinak* | 106. or. |
| AZA. **26** Asteartea | 9:45 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Onírica Mecánica**<br>*Alizia eta hiri ikusezinak* | 106. or. |
| | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| AZA. **27** Asteazkena | 17:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*My fair lady* (1964) | 40. or. |
| | 20:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Hi, Ai – Love stories from the future* (2019) | 45. or. |
| AZA. **28** Osteguna | 9:45 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Mons Dansa**<br>*Paperezko ametsak* | 106. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Hi, Ai – Love stories from the future* (2019) | 45. or. |
| | 19:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*My fair lady* (1964) | 40. or. |
| AZA. **29** Ostirala | 9:45 | Bilbon Eskolatik Antzerkira<br>**Mons Dansa**<br>*Paperezko ametsak* | 106. or. |
| AZA. **29** > **1** ABE. Ost. > Iga. | | Musika eta soinua<br>**La Escucha Errante 2019** | 84. or. |
| AZA. **30** Larunbata | 19:30 | Dantza<br>**Aimar Pérez Galí**<br>*The Touching Community* | 70. or. |

# AGENDA
# / ABENDUA

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
|---|---|---|---|
| UZT. **4**<br>> URT. **26** | | **Nestor Lizalde**<br>*Akelarre Elektrikoa* | 28. or. |
| IRA. **16**<br>> ABE. **13** | | **Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborategia** | 56. or.<br>107. or. |
| IRA. **19**<br>> AZA. **16** | | Erakusketa<br>**Garazi Ansa, Marc Badal & Laura Vallés**<br>Komisario Berriak | 20. or. |
| AZA. **15**<br>> URT. **15** | | Fatxada<br>**Ane Pikaza** | 26. or. |
| AZA. **29**<br>> **1** ABE.<br>Ost. > Iga. | | Musika eta soinua<br>**La Escucha Errante 2019** | 84. or. |
| ABE.<br>**1 > 31** | Egun osoa | Artista Az Kidea<br>**Oscar Gómez Mata**<br>*Deriben katalogoa* | 34. or. |
| ABE. **3**<br>Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| | 19:30 | **Tartean Teatroa**<br>*Ghero* | 64. or. |
| ABE. **4**<br>Asteazkena | 12:00 | Dokumentala<br>**Roberto Menéndez**<br>*La memoria del cuerpo: formas en el espacio-tiempo* | 105. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Yôkihi* (1955) *Yang Kwei Fei enperatriza* | 41. or. |
| | 20:00 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Mohai* (2010) + *The soft mud and Fanboy* (2012) + *Life of our progressive thinkers* (2013) + *Global windshield, the musical* (2018) | 45. or. |
| ABE. **4**<br>> URT. **16** | | Erakusketa<br>**José Ramón Ais & Lester Álvarez**<br>*Gauari begira* | 22. or. |
| ABE. **5**<br>Osteguna | 17:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Mohai* (2010) + *The soft mud and Fanboy* (2012) + *Life of our progressive thinkers* (2013) + *Global windshield, the musical* (2018) | 45. or. |
| | 19:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Yôkihi* (1955) *Yang Kwei Fei enperatriza* | 41. or. |

| NOIZ | ORDUA | LANA/JARDUERA | +INFO |
| --- | --- | --- | --- |
| ABE. **10** Asteartea | 10:00 | PlayTime Laborategia. **David Hornback.** *Gogo zatiak* | 101. or. |
| | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| | | Artisas Asociadas a Az<br>**Sra. Polaroiska**<br>*Emakume jakintsuen kontseilua* | 34. or. |
| ABE. **11** Asteazkena | 10:00 | PlayTime Laborategia. **David Hornback.** *Gogo zatiak* | 101. or. |
| | 11:00 | **Jaiotz Osa (Osa + Mujica)** Dantza garaikideko tailerra | 72. or. |
| | 17:00 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Les demoiselles de Rochefort* (1967) *Rocheforteko andereñoak* | 41. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Space is the place* (1974) + *In the year of the quiet sun* (2013) | 46. or. |
| ABE. **12** Osteguna | 10:00 | Laboratorio PlayTime. **David Hornback.** *Pedazos de la mente* | 101. or. |
| | 17:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Space is the place* (1974) + *In the year of the quiet sun* (2013) | 46. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Les demoiselles de Rochefort* (1967) *Rocheforteko andereñoak* | 41. or. |
| | 19:30 | **Osa+Mujika**<br>*Suddenly III* | 72. or. |
| ABE. **17** Asteartea | 18:00 | **consonni radio Az-rekin** | 30. or. |
| ABE. **18** Asteazkena | 17:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Gertrud* (1964) | 41. or. |
| | 19:45 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Los mundos de Ursula K. Le Guin* (2018) + *Notre Dame des hormone*s (2014) | 45. or. |
| ABE. **19** Osteguna | 17:30 | Zinemateka. **Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz**<br>*Los mundos de Ursula K. Le Guin* (2018) + *Notre Dame des hormone*s (2014) | 45. or. |
| | 19:30 | Zinemateka. **Zinemaren historiako 50 harribitxi**<br>*Gertrud* (1964) | 41. or. |
| ABE. **26** > URT. **4** | | **Gabonak Arte**<br>Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat | 90. or. |

## BISITA GIDATUAK

**Banakako bisitak:**

Astelehena eta asteartea (gaztelaniaz), 19:00
Osteguna (euskaraz), 19:00
Bisita dohainik da, 45 minutuko iraupena du, eta gutxienez bost lagun behar dira egin ahal izateko.

**Taldekako bisitak:**

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 25 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50 eurokoa da (25€ behar bezala eratuta dauden eta bisita hau beren jarduera-egutegian sartzen duten elkarteak).

Informazioa eta erreserbak: Az Info eta 944 014 014 telefonoan.

## Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu.

Galtzeagatik eta/edo datuak aldatzeagatik txartela berritu behar bada, horrek 3 euroko kostua du.

## IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska iezaguzu.

## ORDUTEGIA

### Kulturen Ataria

| | |
|---|---|
| 7:00 - 23:00 | ASTELEHENA-OSTEGUNA |
| 7:00 - 24:00 | OSTIRALA |
| 8:30 - 24:00 | LARUNBATA |
| 8:30 - 23:00 | IGANDEA ETA JAIEGUNAK |

## ORDUTEGIA

### Lantegia

Programazioaren arabera zabalduko da

### Auditorioa eta Bastida Aretoa

Programazioaren arabera zabalduko da

### Mediateka BBK

| | |
|---|---|
| 9:00 - 21:00 | ASTELEHENA - LARUNBATA |
| 10:00 - 14:00 | IGANDEAK ETA JAIEGUNAK |

### Ikasketa Aretoa

| | | | |
|---|---|---|---|
| 7:00 - 23:00 | ASTELEHENA - OSTEGUNA | 8:30 - 24:00 | LARUNBATA |
| 7:00 - 24:00 | OSTIRALA | 8:30 - 23:00 | IGANDEA |

### Jarduera Fisikoko Zentroa

| | |
|---|---|
| 7:00 - 23:00 | ASTELEHENA - OSTIRALA |
| 8:30 - 23:00 | LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK |

### Erakusketa Aretoa

ASTELEHENA ITXITA

| | |
|---|---|
| 11:00 - 20:00 | ASTEARTETIK OSTEGUNERA ETA IGANDEAK |
| 11:00 - 21:00 | OSTIRALAK, LARUNBATAK, IGANDEAK, JAIEGUNAK ETA JAIEGUN BEZPERAK |

### **Jendearentzako arreta** (Az Info eta telefonoan)

| | |
|---|---|
| 8:00 - 22:00 | ASTELEHENA - OSTIRALA |
| 9:00 - 22:00 | LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK |

### Az Info

| | |
|---|---|
| 8:00 - 22:00 | ASTELEHENA - OSTIRALA |
| 9:00 - 22:00 | LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK |

### dendAZ

| | |
|---|---|
| 10:00 - 21:00 | ASTELEHENA - IGANDEA |

## OHARRAK

## OHARRAK


Azkuna Zentr